

GUaiXe.net



Bi odol-emaile delegazioren festak ospatu dira



Sakanerria >> 8

Ipar eski ikastaroa eta zeharkaldia antolatu ditu Mank-eko kirol zerbitzuak. Interesatuak izena ematea zabalik dute



Kirolak >> 11

Sakantzen-en prestakuntza saioak

Larunbatean, 10:00etatik aurrera, Etxarri Aranazko kultur etxean izanen dira

Sakanako garapenean edo jorratuko diren gaietan interesa duten guztiei dago zabalik

Kooperatiba bat nola egin eta lau sektoretako arituek euren esperientzia azalduko dute >> 3



Sunsundeguri finantziazio iturria itxi dio gobernuak

Enpresa batzordeak gobernuari konpromisoa eskatzeko manifestazioa deitu du gaurko, 18:30ean, Altsasun >> 9



Portlanden hondainak erregai

Nafarroako Gobernuak Udalez Gaindikotik Plan Sektoriala onartu du, alegazio guztiak baztertu ondoren

3MB plataformak gobernuaren inposizioa eta zentzugabekeria salatu ditu. Martxoaren 16an, manifesta-

zioa Lautada, Ameskoa, Goierri eta Sakanako hautetsiak Olaztin itxiko dira. Bihar, 12:00etan, >> 5



Uholdeak eta trabak ekarri dituzte euriteek >> 8



Sakanako kultur aniztasuna, Etxarriko kontzertuan >> 15



Urdalurko sarean matxura, Altsasun ur etena >> 6



San Sebastian ospakizunak Lakuntzan eta Olaztin >> 9

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.



Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan!

LEHALSA

Leiho-Isolatzaileak • Alumninoa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), **Altsasu**
Telf.: **948 468 559**
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Victorina Belascoain

ZORIONAK ABUELA! Gaur 90 urte egiten dituzu! Beti bezain irrifartsu segi eta muxu haundi bat familia guztiaren partez!



ZORIONAK IZAS-KUN!!

Zure eguna primeran eta ongi inguratuta pa-sa duzulakoan nago! Muxurik goxoen!



Adur Mayo Razkin

ZORIONAK zure 9. urtebetetzean!! Muxu asko etxekoan partez.



Maitane Moreno Mendoza

ZORIONAK printze-sa zure 3. urtebetetzean!! Muxu asko etxekoan partez.



Hector

ZORIONAK Hector zure 1. urtebetetzean!! Maripi, Marta, Luken eta Unaiaren partez. Muxu asko.



Lucia

ZORIONAK Lucia! Lehengusu eta ahizpa onena zara! Muxu asko Etxarriko eta Altsasuko familiaren partez.



Txaro

Nahiz eta 7 edo 47 urte izan, beti gure gindila izango zara. Getako kafeko koadrila. ZORIONAK!!



Aritz Aiestaran

ZORIONAK txapel-dun!! Oso egun polita pasa urtebetetzean zure lagun guztiekin!! Maite zaitugu!! Eta muxu muxu asko asko. Aita, Maia-len eta ama.



Naroa

ZORIONAK maitia! Xoragarria zara eta gure egunak zoragarriak bihurtzen dituzu. Maite zaitugu printzesa!



Aiala

ZORIONAK pitxona! Gure txikitxoak urte 1. Izugarri maite zaitugu. Naroa eta Iraia.



Xabat

ZORIONAK txapel-dun! Bihurria bezain maitagarria zara! Zurekin ez dago aspertzarik. Muxu x 4.



Ane Vegas Rodriguez eta Luis Victor

ZORIONAK bieii! Muxu asko familiaren partez.



Ane Vegas Rodriguez

ZORIONAK printzesa!! Aita, ama eta Iraia partez. Muxu asko asko.



ZORIONAK BIKOTE!! Pozik gaude, 6 eta 8 urte bete berri ditugulako. Bai gauza ona urtez-urte elkarrekin gozatu ahal izatea! muxuak aita eta amak.



Paula Urabaien

ZORIONAK printzesa!! Bi-kain pasa dezazula zure 5. urtebetetzean!! Muxu handi bat zure gurasoen eta aitona amonen partez.



Ekain Amillano lgoa

Denon partez MILA ZORION koxmin. Prezioxo.

ilbeltzak

18-24

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Gose. Ilbeltzaren 19an, larunbatean, 20:30ean Lakuntzako plazan.

DJ topaketa Lakuntzako Sarginak: Nestor, NQ eta Iosu Garate. Ilbeltzaren 18an, ostiralean, 24:00etan, Lakuntzako Sarginak tabernan.

Rondalla Armonia eta Trasteando. Ilbeltzaren 19an, larunbatean, 20:30ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Irurtzango musika eskola, Kituka Burundi, Djembe taldea, Youssef Keiji eta Maider Ansa. Ilbeltzaren 20an, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. Munduko Musikak, **Bierrik fundazioaren alde.**

Antzerkia

Arratoitxo pinpirina. Ilbeltzaren 20an, domekan, 17:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean. Glu Glu. **3 urtetik gorakoendako.**

Ipuin kontalaria

Mimiren abenturak. Ilbeltzaren 24an, ostegunean, 17:30ean Etxarri Aranazko udal liburutegian. Lur Usabiaga. **3 urtetik gorakoendako.**

Dokumentalak

Los Trileros Forales. ¿Quién se ha llevado los dineros? Ilbeltzak 18, ostirala, 19:30ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Proiektzioa

Hezkuntza alternatiboko bideo emanaldia. Ilbeltzaren 18an, ostiralean, 19:30ean Altsasuko Gaztetxean. **Sakanako asanblada libertaria.**

Proiektzioa. Ilbeltzaren 20an, domekan, arratsaldean, Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Hezkuntza alternatiboko bideo emanaldia. Ilbeltzaren 24an, ostegunean, 19:30ean Olatzagutiko Gaztetxean. **Sakanako asanblada libertaria.**

Zinema

Cesar debe morir. Ilbeltzaren 18an, ostiralean, 21:45ean, eta ilbeltzaren 20an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Un buen partido. Ilbeltzaren 18an, ostiralean, 22:00etan, eta ilbeltzaren 20an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Mendi irteera

Lacturale. Ilbeltzaren 20an, igandean, 9:30ean Etxarri Aranazko ikastolatik. **Sakanako ikastolen mendi taldea.**



Gose taldeak bihar bere azken lana aurkeztuko du Lakuntzan, 20:30ean.

Txirrindula irteerak

Urruntzura. Ilbeltzaren 20an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 55 km. **Burunda Mendi Bizikleta taldea.**

Literatura

Poema errezitaldia. Ilbeltzaren 19an, larunbatean, 20:00etan Irurtzango kultur etxean. **Koldo Pla eta hainbat laguntzaile.**

Erakusketak

Jokin Alegria. Ilbeltzaren 19ra arte, astez 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean.

No somos distintos. Ilbeltzaren 20tik otsailaren 3ra, astez 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean. **Motxila 21.**

Tailerrak

Guraso eskola. Ilbeltzaren 21ean, astelehenean, 15:20tik 17:00etara Irurtzango Atakontoa eskolan.

Gure seme-alabekin egoera zailak nola kudeatu. Ilbeltzaren 22an eta 29an, astearteetan, 15:00etatik 16:30era Uhartea Arakilgo udaletxean. **Gizarte zerbitzuak.**

Bestelakoak

Sakantzen, 2. lan jardunaldi irekia. Ilbeltzaren 19an, larunbatean, 10:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

Euskal Herriko V. mus txapelketa. Kanporaketak. Ilbeltzaren 19an, larunbatean, 16:00etan Irurtzango Pikuxar euskal txokoa eta Altsasuko Zubiondo elkartearen.

Kafe tertulia "Nire haurrak ez du jan nahi". Urtarrilaren 22an, asteartean, 17:00etan, doan eta zabalik Kattuka haur eskolan.

Deialdiak

Sunsundeguiaren etorkizuna eta Sakanako etorkizunaren defentsan konpromisoak orain! Ilbeltzaren 18an, ostiralean, 18:30ean Altsasuko Foru plazatik manifestazioa. Enpresa batzordea.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 18an, ostiralean, 20:00etan, Irurtzango, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Udal autonomiaren defentsan, Olatzagutirako egindako PRSISI Ez. Ilbeltzaren 19an, larunbatean, 12:00etan Olatzagutiko udaletxe aurrean kontzentrazioa. Sakana, Lautada eta Lizarraldeko iritziz politikoko ezberdinetako hautetsiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 20an, domekan, 20:00etan, Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Ilbeltzaren 21an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.



Alegriaren erakusketa lortian.

>>



Euskara eta euskal kulturarako aurkezpen txartela

Lakuntzan 12 ikasle eta Altsasun 18 harrera ikastaroetan ari dira

Sakanara etorri berri direnak euskara eta euskal kulturarekin topo egiten dute. Haiek arrotz ez izateko eta lehen harreman bat izateko antolatu ditu harrera ikastaroak Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak. Etorkinek komunikazioaren oinarriko elementuen ahozko eta idatzizko ulermena garatzea eta Sakanara eta euskal gizartearen hobe ezagutze helburua dute ikastaroek.

Azaro akaberan hasi ziren Lakuntza eta Altsasuko ikastaroak eta otsailaren 22an despedituko dira. 60 ordu guztira. Bi herrietako eskoletako hartu-emanaren fruitu dira bi ikastaroak. Lakuntzan Afrika iparraldeko eta Hego Amerikako sakandar berriak daude. Altsasun, berriz, Zelandiaguraso elkartearen ekimenez sortu da taldea. Izan ere, Madrildik Olaberriako Arcelor Mittalen lantegira lanera etorritako langile asko Altsasun bizi baitira. Haiekin batera, Europako herrialdeetako altsasuar berriak ere ari dira. Hala ere, taldeak osatzeko Mank-ek beste herrietara ere zabaldu zuen eskaintza eta horrela osatu dira.

ZERGATIA

Izena emateko arrazoiei dagokierenez, Maitane Aiestaran irakasleak azaldu digu seme-alabak Dereduan ikasten dituztela eta haurrak laguntzeko gogoagatik eman dutela. Horretaz aparte, hemengo giroa ezagutzeko helburua ere badute. Gainera, haietako batzuk jende euskalduna ezagutzen dute eta horrek ere zeresana izan du. Harrera ikastaroa despeditu ondoren, euskara ikasteko dagoen eskaintzaren eta laguntzen berri emanen die Euskara Zerbitzuak ikasleei. Gaur egun AEKn ikasten ari den talde bat horrela sortu zen.

SAKANA

Prestakuntza saioak Sakantzen Sarearen eskutik

Larunbatean, 10:00etatik aurrera, Etxarri Aranazko kultur etxean

Sakanako garapenean edo jorratuko den gaien interesa duten guztiei dago zabalik

Pasa den urteko garagarriaren 2an antolatu zuen Sakantzen Sareak I. Lan Jardunaldi Irekia. Gizarteak Sakanako garapenean joka dezaken paperaz hausnarketa kolektiboa aztertzearekin batera, egungo egoera iraultzeko ideia berriak landuko dituzten lantaldeak sortu ziren. Sakantzen Sarean 7-8 lan talde daude gaur egun lanean. Dagoeneko proiektuak martxan dauzkate eta haien berri ematen da jardunaldiaren hasieran.

Sareak biharko II. Lan Jardunaldi Irekiaren bidez lantalde horietako kideen prestakuntzan sakondu nahi du. Baina, aldi berean, saio irekiak dira eta landuko diren gaietan interesa duten pertsonak gonbidatuak daude.

Tailerrak

Ibarreko egoera ekonomikoa ikusita, Sakantzen-ek kooperatiba sortzen eta bideragarritasun plana egiten ikasteko tailer bat pres-

tatu du. Gero arlokako lau tailer berezi ere egingen dira. Horietan guztietan hainbat arituk hartuko dute hitza. Haien esperientziaren berri emanen dute eta Sakanarako baliagarria izateko moduak aztertuko dituzte.

Gainera, kirola-turismoa tailerrean hainbat gizarte eragilek parte hartuko dute udarako turismo eta kirolari buruz Sakanako estrategia prestatzeko. Izan ere, sareko

Sakantzen sarea?



Sakanan bizi dugun krisiaren larritasunagatik sortu zuten Sakantzen Sarea ibarreko zenbait bizilagunek. Sakanako garapenearen sustapenerako sare soziala izan nahi du Sakantzenek. Beste modu batean esanda, garapen komunitarioko esperientzia irekia da. Jende sare bat da, non beraien ezagutzak, esperientziak eta gogoak partekatzen eta konbinatzen dituzten. Indar-guneetan oinarrituta eta gizartearen indarrak aktibatuz, giza garapen iraunkorrerako norabidean jarduera ekonomiko berriak eta lanpostu berriak sortzea du helburu.

Egitaraua

10:00etan Zer da Sakantzen sarea? Nola dago? Nola daude lan taldeak?
10:30ean Kooperatiba bat nola sortu eta bideragarritasun plan bat nola egin. ANEL
11:15ean Kafea eta pastak.
11:45ean Tailerrak. *Musika eta artea:* Kerobia eta Dora Salazar. *Energia berriztagarriak eta Nekazaritza ekologikoa:* ESIP eta Patxi Lakuntza. *Kirola eta turismoa:* Mugaiepe. *Arlo soziala:* REAS.
13:00etan Abenduko ideia ekaitzaren emaitzen azalpena. Lan taldeak osatu eta antolatu.

Tailerretako hizlariak

Dora Salazar
Altsasuarra itzal handiko eskultorea da nazioartean.



ANEL (Asociación Navarra de Empresas Laborales)

Elkarteak 30 urteko ibilbidea du eta Nafarroako ekonomia sozialean erreferentziatzeko erakundea da. Bere bazkide diren enpresen kapital sozial gehiena langileen esku dago. Bere bazkideei zerbitzua eskaintzen die, ikuspegia etorkizunean jarri eta berrikuntzari ateak zabalik. Beti ere, parte hartzea, enplegu kalitatea eta lehiakortasuna bilatuz. ANELeko ordezkari batek kooperatiba bat nola sortu eta bideragarritasun plan bat nola egin azalduko du.

Kerobia
Iruñeko musika laukoteak 2001etik ari da eta autoekoizpen, autogantziagintza eta autopromozioan ibilbide zabala du. Abenduan argitaratu du Supernova lan diziplina anitzeko eta hura finantzatzeko finantza-azulana erabili du.

ESIP

Altsasuko enpresak energia berriztagarriak energi iturri dituzten proiektu eta azpiegiturak egiten ditu. Eguzki indarra lantzen hasi

zen eta lan esparrua biomasara zabaldu zuen. Partikular eta enpresei eskaintzen die zerbitzua. Arlo horretan eskualdeko erreferentzietako bat da.

Patxi Jabier Lakuntza Beuntza



Irurtzundarra, energia berriztagarrietan aditua eta UrWatt-eko presidentea (estatuko energia hidroelektrikaekoizleen elkartea), 25 urte baino gehiagoko eskarmentua du sektorean. Eguzki fotoboltaiko energian ere aritua. Oinez Basoaren sustatzailea eta bizikleta elektrikoaren bultzatzaile da, besteak beste.

Mugaiepe

Etxarri-Aranatzeko aisialdirako enpresak erabiltzaileei beharrezko materiala eskuratzen dietena eta tituludun monitore talde batez inguratuta dagoena; horretaz aparte, edonolako aktibitateak egiteko beharrezkoak diren ezagupenak eskaintzen ditu. Adinguztiena dako aisialdi eskaintza egiten du.

REAS (Red de Economía Alternativa y Solidaria)

Finantza etikoak, ekonomia solidarioa, kontsumo arduratsua, bidezko merkataritza edota gizarte merkatua esparruetan lan egiten du sarearen. Makina bat proiektu martxan jarri ditu.

edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiralero 9:30etik 10:30era SAIOA

Asteburuko agenda

Asteko errepasoa: albisteak, kirolak, ikasle britainiarren bisita, Pentsionistak martxan...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratia!



Raf Atxuri

Ibarretxe eta plana

astekoa

barrutik kanpora

Caritas-ek eskerrak ematen dizkizue

Pago ipurdi-iparrari goroldioa bezala izen batzuei izenondo bat lotzen zaie tenkor.eta luzaz. Hala-xe gertatu zaio Ibarretxeri plana hitzarekin. Ibarretxe entzun eta berehalaxe haren planaren gomuta dator kigu, nolako bidea uraitu zuen eta haren etsipenezko amaiera. Kataluniako auziaren zurrunbiloan Ibarretxeren plana deritzana puri samarrean dago berriz, eta gaurkotasuna hartu du espainiar konstituzio-

zaleek aireko beldurak uxatzeko edo, Generalitat-en erronka subiranistari Ibarretxeren planaren amaiera berbera ikusten diotelako: zakarrontzia eta protagonisten porrota. Ibarretxeren gobernuaren proiektuaren destinu petrala azaltzeko arrazoiaren artean bat nabarmenduko nik, hots, EAJ-ko zati batek, Imaz eta Azkuna tarteko (orain munduko alkate izendatu berritan munduko kri-

si eta aje guztiak akabo) bizkarraren eman zion ditzosozko planari. Lehendakariak burua makur eta buztana hanka tartean ikusi zuen bere alderdiaren epelkeria jasandako umiliazioaren aurrean. Halakoxea espero dute Madril-en, ezezkoea ematea auzitegiz edo lege eta konpontxo bategitea zentzuriko kataluniarrekin. Paisos-etik, ordean, bestelako berria ematen digute, oraingoa ez da Mas

gora beheara, pertsona edo gobernu jakin baten plan huts bat. Aitzitik herriaren zati mardul baten benetako xede edo goiasmoa da eta nahikari hau ez dute ezezko arrotz batekin historia- ren zakarretara bidaliko. 2014an gertatuko denaz egarri, dakiguna da herri katalanak bide malkartsuari ekiteko behar bezainbat indar, jakintza eta adorea dauzkala orain. Espainiak zer dauka eskaintzeko?

Azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean elikagai-bankuak Gabonetako elikagai-bilketa kanpaina antolatu zuen Nafarroan urtero bezala. Beste urte batzuetan ez bezala, aurtun, Altsasu ere kontutan hartu zuten kanpaina honetan parte hartzeko, Altsasu bai da hilero erakunde honen onuradun zuzena. Horretarako, Caritasekin harremanetan jarri ziren, boluntarioak eskatuz, jendeak ematen zituen elikagaiak jasotzeko, eta harrera egiteko. Lan hau elikagai hauek jasotzen dituzten pertsonen egin zuten. Guaixek hainbeste jenderi iristeko aukera ematen digunez, Caritas-ek, aprobetxatu nahi du kanpaina honetan parte hartu duten guztiei eskerrak emateko. Benetan eskertzekoa da egin duzuen Sakanako egoera sozio-ekonomikoa ezagutuz, guztira 3.000 kilo elikagai eman baidituzue. Aprobetxatu nahi dugu baita ere, eskerrak emateko beren gabonsariaren zenbatekoa Caritasi eman dioten Sakanako hainbat enpresetako langileei. Sakan-darren solidaritatearen beste adierazpen bat.

hara zer dien

Joko eta jostailuen inguruko hausnarketa

Pasa dira eguberriak eta gure eguneroko bizitzari ireki dizkiogu ateak berriro ere... Gaurkoan joko eta jostailuei tartetxo bategitea interesgarria iruditua zaigu, eguberrietan paper garrantzitsua bete baitute umeak eta gaztetxoak dauden etxeetan batik bat. Irurtzungo zonaldeko Gizarte Zerbitzuak joko eta jostailuen inguruan urte bukaeran ekintza desberdinak antolatzen ditu (joko kooperatiboaren erakusketak, joko eta jostailu egokiaren erakusketak, trukaketak...), hauek paper

garrantzitsua betetzen baitute ume eta gaztetxoaren garapenean, baita hauen familietan ere. Drogamenpekotasun Prebentzio programatik joko eta jostailuaren inguruan familiak duen papera azpimarratu nahi dugu. Hau da, joko eta jostailua tresna moduan erabiliz, familian ematen diren harremanei garrantzia eman nahi diegu. Jolasaren bidez familia barruan ematen diren emozioak azalerazi eta lantzen daitezke, komunikazioa hobetzeko baliabide itzelak direlarik.

Gainera familia barruan konplizitatea sortu eta mantentzeko tresna egokiak dira, umeekin jolasean pasatzen dugun denbora horretan sentimendu, egoera... desberdinak agertu eta lantzen ditzaizkegun. Gurasoak seme-alabekin jolasten denbora pasatzea oso gomendagarria da, momentu atseginak elkarbanatzeko aukera ematen digulako, harremanak sendotuz. Ezin dugu ahaztu jolasak umeetan sortzen dituen onurak, hauen garapenean paper garrantzitsua jokatzen baitu. Jostailuak baino garrantzia handiagoa jolasak berak dauka. Jolasa mundu sinboliko bat da, hain zuzen, umearendako hain itzela den errealitatea barneratzeko modua. Errepresentazio modu bat da, errealitatea ulertu,

onartu eta egokitzeko. Jolasak badu beste ezaugarri bat garapenerako oso garrantzitsua dena: txikienetan jakin-mina sortzen duela. Aipatutako guztiagatik joko edo jostailu egokia aukeratzeko garrantzitsua da. Jostailua haurren adinari eta haren garapen mailari egokitu behar zaio. Aldi berean jostailu asko oparitzea itogarria izan daiteke haurrendako. Hobe da opariak urte barruan egitea, opari guztiak garaizehatz batean egitea baino. Gomendagarria da jostailuekin dibertitu, hezi eta irudimena garatzea. Beraz, jolastera!!

Sakanako Prebentzio Programetako teknikariak

gutunak

Atal honetan ahalik eta irizki gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Urtero okerrago

Arturo Carreño Parras, Altsasuko EBko zinegotzia

Eguneroko albisteak arlo guztietan negatiboak dira: lan istripuak eta errepidekoak, festa guneetan segurtasun falta, emakume eta adingabe koen hilketak, osasunaren eta hezkuntzaren aldeko grebak, garraio, energia eta elikagaien prezioen igoerak, enplegu erregulazio espediente-

ak etengabe... azken batean, erabateko kaosa eta langabezia goraka arin-arin. Pentsiodunen kolektiboa erosteko ahalmenaren galaragatik kezkatuta eta milaka kasutan seme-alaba nagusiak etxean, eta ilobekin ere; jende asko edukiontzietan bilatzen eta gizarte-jangeletara eta Caritase-ra joaten, eta abar, eta abar. Gurasoek kontatzen zuten 1936-1939 gerra aurreko eta ondorengo panorama antz handia duela egoerak: gose urteak, langabezia

eta miseria. Pentsatzen dut egin dezakegun elkartasun ahalegin guztiaz aparte, erakundeetatik gehiago egin beharko litzatekeela egoera arintzeko. Arakilgo Udalak Tokiko Enplegua sortzeko ekimen oso interesgarria du. Haren erdua segi beharko luke Sakanako gainontzeko udalek eta Mankomunitateak eta Tokiko Enplegua eta orokorra gehiago sustatu aurrekontuetako sailak bideratuz. Baita industria-lurra baldintza onetan eskainiz,

ekimen pribatuak enpresa berriak jartzeko aukera izan dezan. Ezin gara Mirariaren zain geldirik gelditu, aberastasuna eta lana sortzeko ideiak garatu behar dira. Hauteskunde Programak bete behar dira, batez ere interes orokorraren eta kolektiboaren izenean. Batez ere, beharrezko nagatik hasi behar da: lana sortu, ordu estrak kendu, lana egoki banatu eta elkartasun handiagoa izan ahulenean.

gora/behera

Harrera ikastaroak Sakandar berriei euskara eta gure kultura ezagutzera emateko bidea.

Inposizioa Gobernuak porlandegirako onartutako udalez gaindikoa plan sektoriala inposizio gisa ikusi dute sakandar eta eragile gehienek, baita udal guztiek ere.

Guaixe

ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net
GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU • 948 564 275 • 948 562 107 • guaixe@guaixe.net
PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net • Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net • 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa
Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa
Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea
Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoieta Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso
Zuzentzailea: Garazi Garzia Mauleon
Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 4.500 ale

LAGUNTZAILEAK:



SAKANA

Gobernuak Portlandi hondakinak erretzeko baimena eman dio



Gobernuaren oniritzi jaso ondoren Portland udan has liteke balioztatzen. ARTXIBOA

Neurri horrekin porlandegiaren jarraipena eta lanpostuak bermatu nahi ditu ekoizpen-kostuak murriztuz, energia aurreztuz eta erregai fosilen kontsumoa murriztuz

Zazpi hilabeteko tramitazioaren ondoren, Nafarroako Gobernuak Cementos Portland Valderrivas-ek (CPV) egindako eskaera onartu zuen herenegun egindako bilkuran. Olatzagutiko Udalak herrian hondakinak ez erretzeko duen ordenantza aurre egiteko, gobernuak, Udalez Gaiendiko Proiektu Sektorial (UGPS) gisa tramitatu du baimena.

UGPSrekin gobernuak Portlandi hirigintza eta ingurumen arloko baimena eman dio “arrisku-tsuak ez diren hondakinak hartu, biltegitatu eta dosifikatzeko zementu-ekoizpeneko prozesuan”. Gobernuak proiekturako ingurumen-eragineko deklarazioa egin du, “ingurumen aldetik bideragarritzat” jotzen duena, eta ingurumeneko baimen integratu berri bat eman du zementu-fabrika instalatzeko.

Nafarroako Gobernuak aurkeztu diren 36 alegazioak atzera bota ditu. Erakunde hauek aurkeztu zituzten: Cementos Portland, Olatzagutiko Udala, Sakanako Mankomunitatea, Izquierda-Ezker, Sustrai Erakuntza fundazioa eta Bakaiku, Ameskoabarren, Araratxe, Eulate eta Larraonako Udalak.

Egin beharreko lanak

Portlandegiko 7 eta 8 labeetan erabiliko dira hondakinak ordeztu erregai gisa. Horiek hartu, biltegitatu eta dosifikatzeko Portlanden azpiegiturak eraiki egin behar dira. Hauek zehazki: kamioien zalamalnetarako zuloa, biltegitatzeko zuloa, geldotzeko gela, transferentzia-dorreak, erregailurako garraioa eta zerbitzuko ekipa eta azpiegiturak. Lehen fasean egitura muntatzeko 955.529 euroko inbertsioa egingen du CPVk eta 718.798 bigarrean. Guztira 1,67 milioi euroko inbertsioa.

36.500 tona

Nekazaritza- eta baso-jatorriko hondakinak, paper- eta kartoi-pastaren ekoizpen eta transformazioaren hondakinak, hondakinetatik sortutako erregaien tratamendu mekanikoaren gainerako frakzioa, zatiketako frakzio arinak eta plastiko nahiz kautzuko hondakinen tratamendu mekanikoaren hondakinak.

tzen da”. Geroa Baik salatu du prozedurak ez duela gardentasunik izan. Gobernuak eskualdean enpleguarekin duen konpromiso gisa saltzea ez du egokitzen jo Geroa Baik, Sunsundeguiaren etorkizuna airean gelditu den astean. Herenegun, bestalde, Altsasun kale mozketak eta manifestazioak egin zuten 150 bat pertsonen.

>>



Hondakin kudeaketa sistema gisa errausketa baztertzea eskatu du 3MBk.

Plataformak gobernuaren inposizioa eta zentzugabekeria salatu ditu

Beste hondakin kudeaketa eredu batzuk (badiarelako) bilatzeko, eta aurkitzeko, eskatu du

Martxoaren 16rako Altsasun protesta manifestazioa deitu eta hartan parte hartzeko deia luzatu dute

3 Mugak Batera (3MB) plataformako kideen iritziz, “UPNren Nafarroako Gobernuak ez du, errausketa alde batera utzi eta beste eredu batzuk aukeratzeko eskatzen dion gizartea aditu nahi”. Atzo Iruñean eman zuten prentsaurrekoan salatu zuten Nafarroan hondakin kudeaketaren gaian orain arte agindu duen arrazionaltasuna baztertu duela UPNk.

Plataformaren iritziz UPNren gobernuak “errazera jo du, labeak hondakinak balioztatze inposatu. Kasu honetan FCC hondakinen multinazionalak Olaztin dituen labeak hondakinak erraus-teko erabiliz”. 3MBtik zuhurtasuna eskatu diote foru administrazioari. “Errauskailuetako edo porlandegi-errauskailuetako labeak baztertzen dituzten beste hondakin kudeaketa eredu batzuk (badiarelako) bilatzeko, eta aurkitzeko, eskatzen dugu”.

Gainera, plataformak “guztigan eragin handia duen gai” horretan “gutxienekoa herritarren benetakoa parte-hartzea ziurtatuko duen epea irekitzea” litzatekeela nabarmendu du. Eta ez “izapide administratibo huts baten bidez” bideratzea. Aldi berean, 3MBk salatu du gobernuaren erabakiak “Nafarroako hondakinen kudeaketa publikoan instalazio eta jarduera pribatu txertatzeko ekimenak” dela.

Argudio gehiago

Errausketaren kontrako plataformak gogora ekarri du aldarri horrekin bat egin duten 10.000 pertsonen sinadurak jaso dituztela. Sakanako, Nafarroako eta Arabako hainbat udal errausketaren kontra ere azaldu direla nabarmendu du. “Baina gobernuari bost axola zaizkio horiek eta azken ikerketek berretsi dutena: hondakinak errausiten dituzten plantetatik hurbil bizitzeak minbizia

>>

Errausketa baimenaren kontrako hautetsien itxialdia



Larunbatean, 12:00etan, Olatzagutiko udaletxe aurrean egingen den kontzentrazio batera deitu dituzte sakandarrak

Sakana, Lautada, Goierri eta Lizarraldeko iritzi politiko ezberdinetako hautetsien ordezkariak batek gaur 20:30ean itxialdia hasiko du Olatzagutiko udaletxean. Protesta horrekin “Nafarroako Gobernuak herenegun udalen autonomiaren aurka hartutako erabakia” salatu nahi dute. Zehazki “Portlandionartutako Udalez Gaiendiko Proiektu Sektoriala (UGPS)”. Hautetsi talde horren iritziz “ezohikoa beharko lukeen formula hori, geroz eta ohikoago bihurtzen ari da, gutxiengotik gobernatzen duen Nafarroako Gobernuaren aldetik”. UGPSk gobernuari Olatzagutiko udal arautegiaren gainetik irizpideak inposatzeko bidea ematen diola salatuko dute. Interes orokorraren izenean gobernuak UGPS onartzea “larritzat” jotzea hautetsiek, “enpresa pribatu baten interes ekonomikoak babesten baititu”. Azkenik, itxialdian parte hartuko duten hautetsiek herritarrei mobilizatzerak eta antolatuko diren ekimenetan parte hartzeko deia luzatu diete.

SAKANTZEN

2. LAN JARDUNALDI IREKIA

SEGUNDA JORNADA ABIERTA DE TRABAJO

URTARRILAK 19 DE ENERO

ETXARRI ARANAZKO KULTUR ETXEAN

10:00 HASIERA / INICIO

ZER DA SAKANTZEN SAREA?

NOLA DAGO? NOLA DAUDE LAN TALDEAK?

LOQUE ES SAKANTZEN? ¿CÓMO ESTÁ LA RED? ¿CÓMO ESTÁN LOS GRUPOS?

10:30 TALAIA

KOOPERATIBA BAT NOLA SORTU

ETA BIDERAGARRITASUN PLAN BAT NOLA EGIN

CÓMO CREAR UNA COOPERATIVA Y COMO HACER UN PLAN DE VIABILIDAD

11:15 KAFEA • PASTAK

11:45 TALAIA

MUSIKA • ARTEA MÚSICA • ARTE: KEROBIA & DORA SALAZAR

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK • NEKAZARITZA EKOLÓGIKOA

ENERGÍAS RENOVABLES • AGRICULTURA ECOLÓGICA: EDP & PAXU LAKUNTZA

KIROLA • TURISMOA DEPORTE • TURISMO: MUGAÍPE

ARLO SOZIALA ÁMBITO SOCIAL: REAS

13:00 AMBURA

BRAINSTORMINGAREN EMAITZAK

RESULTADOS DE LA LLUVIA DE IDEAS

LAN TALDEAK OSATU / CREAR GRUPOS DE TRABAJO

INFO • WWW.SAKANTZEN.ORG

SAKANTZENSAREA@GMAIL.COM

SAKANA

Urdalurko ekarriko matxurak Altsasun ur zerbitzua eten zuen

Astearte arratsaldetik asteazken eguerdira ur hornidurarik gabe egon zen herrian

Urdalurko uharkatik ura ekaritzen duen sarean matxura izan zen asteartean. Sakanako Mankomunitateko langile eta teknikariek Sozarreta eta AGIP artean kokatu dute ur ihesa. “Ziurrenik presio gainkarga bat izan da eta hodia nonbait, lur azpian, lehertu egin da”, baina ez dakite zehazki. Ezta zergatik hustu zen hain azkar Altsasuko biltegia. Halaxe azaldu zigun Aitor Karasatorre Muguruzak, Mank-eko presidentek gertatutakoa. Ur horniketaren etenagatik barkamena eskatu zuen.

Ur ihesak berehala utzi zuen Altsasuko ur biltegia hutsik eta, ondorioz, herritarrak urrik gabe gelditu ziren. Urdalurtik hornitzen diren beste herriek ez zuten hala-ko arazorik izan haien biltegieta ura zegoelako eta herriko iturburuetatik hornitu zirelako.

Altsasu

Ur horniketa bermatzeko, asteazkenean ur biltegi ondoan dagoen tratamendu plantazaharreko hodia



Urdalurko uharkako ur hartunea. ARTXIBOA

Urdalurko tratamendu plantatik heldu den sare nagusiarekin lotu zen. Konponbide horrek aukera eman du tratamendu plantatik ura Altsasuko sare nagusira eta handik hornitzen diren beste herrietako sareetara zuzenean eramateko.

Mank-ek ur premia zuten enpresei Etxarritik ura eramane zuten propio kontratatutako zisterna baten bidez. Bestalde, milalitroko ur biltontzi bana eramane zituen Aita Barandiaran adinduen egoitzara, osasun etxera eta haur eskolara.

Iturrian urrike zegoenez, altsasuarrek dendetara jo zuten eta askotan ur botilarik gabe gelditu ziren.

Beste herrietako iturrietan ere ontziak bete zituenik ere izan zen.

Iribas

Arakil eta Irurtzun Iribasko iturburutik hornitzen dira. Asteazken goizean iturburua eta Urritzako tratamendu planta lotzen duen sare nagusian matxura izan zen. Horregatik, ur biltegieta ez zen urrik iritsi. Baina herritarrei ura etxera iritsi zitzaizen biltegieta nahikoa zegoelako. Mank-ek ur ihesa konpondu bitartean, Urritzako tratamendu planta eta aipatu herrietako deposituak urez hornitzeko neurriak hartu ditu.

Olatzagutia

Epailleak azken hitza Marinen kaleratzean

Parlamentuko Mahaia eta Bozera maileen Batzordeak Marinengatik kezka azaldu eta aldean akordioaren alde egin zuen

Epifanio Marinen kaleratzea balio-gabea zela argudiatuz ELAK epaitegian enpresaren kontrako demanda aurkeztu zuen. Epaiketaren aurretik adiskidetzeei kitaldia izan zen atzo goizean, baina ez zen adostasunik izan. Beraz, epaiketa izanen da. Marinek atzo bukatu zuen bere protestaldia eta dagoeneko etxean da. Hilabete eman du gose greban porlandegira daraman bidearen bazterrean. “Lasai nago. Harro, halako astakeriaren aurrean egin beharrekoa egin dudalako”.

Sakanako ELAKo buru Gorka Viergek aurreko ostiralean adierazi zuen haien nahia dela bi aldeak bildu eta biendako ahalik eta akordio onena lotzea. Viergek adierazi duenez, gaurko adiskidetze ekitaldiaren aurretik hainbat aldiz saiatu dira harremanetan jartzen, alferrik.

**SAKANA**

Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketak

Aurten txapelketako bosgarren edizioa jokatzeko ari da. Arbizuk pasaden urtean finala hartu zuen eta aurten ibarreko lehen kanporaketa hartu zuen, hilaren 5ean. Bihar, berriz, bi kanporaketa jokatu dira, 16:00etan biak ere. Irurtzunen, Piku-xar euskal txokoan, eta Altsasun, Zubiondo elkartearen. Heldu den larunbatean, berriz, Etxarri Aranazko Karrikextu elkartearen izan da kanporaketa.



Pentsionistak Martxan taldea

Altsasuko azokan kontzentrazioa eginenez aurkeztu zuen taldeak bere burua Sakanan. Pentsiodunei haien sariak izoztu zaizkie, botikengatik berrordaindu behar dute, prezioen igotzearekin sumatu dute, baita kaleratze, soldata murrizketa, langabezia eta prekarietatearen ondorioak ere. Neurri horiek eragindakoak eta aurre egiteko batu beharra dagoela uste dute pentsiodun batzuk eta, horregatik, antolatzeke deia egin dute.

Etxarri Aranatz

10 pintada ezabatu ditu gobernuak

“Terrorismoa goresten duten eta udalek ezabatzen ez dituzten pintadak” dira

Nafarroako Gobernuaren eta Gobernu Ordezkaritzaren artean sinatutako protokoloari segituz, Foruzaingoak babestuta, aurreko ostiral goizaldean bi langilek hainbat pintada ezabatu zituzten.

Guardia Zibilak egindako txostenean oinarrituta Arbizuko Udalarik 3 pintada kentzeko eskatu zioten: batetik, elizan dagoen ETaren anagramaren murala, bestetik, haur parke bateko txirristan dagoen Gora Segi pintada eta, azkenik, etxola batean dagoen ETari buruzko pintada eta aldamenen duen Alde Hemendik eta ezabatutako trikornioa.



Murala ezabatzen. 1.000 euroko kostua izan du, gobernuak jakinarazi duenez.

Etxarriko Udalarik bi eskaera egin zituzten. Batetik, Eraga etorbidean dagoen murala kentzeko. Hartan Axio, Mariñelarena eta Zabala hildako ETako kideen irudia agertzen ziren, Eduardo Chillidak egindako Amnistiaren logotipoa eta sugea eta aizkora. Horrekin batera, udaletxean dagoen “Bautista etxia” dioen pintada borraratzeko eskatu zioten eta hura udalak kendu zuen.

dak egindako Amnistiaren logotipoa eta sugea eta aizkora. Horrekin batera, udaletxean dagoen “Bautista etxia” dioen pintada borraratzeko eskatu zioten eta hura udalak kendu zuen.

Protokoloa

Bi erakundeek sinatutako protokoloaren helburua da “Nafarroako zenbait udalerritan dauden terrorismoa goretsi edo txalotzen duten pintadak kentzea, udal horietan pintada horiek garbitzeari uko egiten diotenean”. Protokoloak zehazten duenez, Guardia Zibilak txosten bat egiten du pintaden berri emanez.

Ondoren, ordezkariak haiek garbitzea eskatzen die udalei haien eskumena baita eta hilabeteke epean egiten ez badute Nafarroako Gobernuak kontratatutako enpresa bateko langileek, Foruzainen laguntzarekin, pintadak kenduko dituzte. Udalek ordaintzen ez badute Toki Ogasunen Partaidetzako Fondoko transferentzietatik kenduko zaie dirua protokoloaren arabera.

Etxarri Aranatz

NILSAk hondakin urak tratatzeko azpiegitura hobetuko du

Horretarako Aranazko herriguneko irteeratik ateratzen den hodia ordezkatu dute, 126 metrotan. Hodi berriak presa berriaren ondoan, eskuineko larre batean, 1992. urtean eraikitako hustubidearekin lotuko da. Lotura gunean dagoen gainezkabidea ere berrituko du NILSAk. Eta, gainera, hiruerregistro-putzueginean ditu, eta lehengo hustubidearen kutxeta guztiak kenduko. Nafarroako Gobernuak ingurumen ukipenentarako baimena eman berri du.

Arbizu
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotezia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 • Altsasu
948 467 317 • 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es

>> **Etxarri Aranatz**

Hondakin bilketa berriak jakin-mina piztu du

Atez atekoa, auto-konpostajea eta auzo-konpostaje ereduak ezagutzeko tailer praktikoa antolatuko du udalak

Pasa den astean Etxarri Aranatzko Udalak antolatutako bi informazio batzarretan ehundik gora pertsona bildu ziren. Udalak ezarri nahi duen hondakin bilketa sistema mistoaren inguruko azalpenak jaso zituzten. Argibideak Joxi Bakaikoa alkateak, Aitor Karasatorre Mank-eko presidentek, Eneka Maiz Bilduko zinegotziak, Arantza Artieda NaBaiko zinegotziak eta Aritz Igoa Parte-hartze batzordeko kideak eman zituzten.

Batzarretara joan ziren etxarriarrek udalak adostutako akordioa eta Mank-en egitasmoen berri jaso zuten. Horrekin batera, hondakin organikoak kudeatzeko atez atekoa, auto-konpostajea eta auzo-konpostajea erabiltzen duten hiru herriren esperientzien berri izan zuten: Tarradell (Bartzelona), Ormaiztegi (Gipuzkoa) eta Saint Philbert de Bouaine (Loirako eskualdea).

Hondakin organikoak kudeatzeko hiru modu horien inguruko tailer praktikoa antolatuko duela iragarri du Etxarri Aranatzko Udalak. Han aukera izanen da zalan-tza guztiak argitzeko eta gero familia bakoitzak 3 ereduetatik zein nahi duen erabakitzeko.



Gaiak makina bat etxarriarren interesa piztu zuen. UTZITAKOA

PP atez atekoaren kontra

Sakanako Mankomunitateak proposatu duen hondakinak biltzeko sistemaren kontra azaldu da Juan Antonio Extremera PPko zinegotzia. Popularraren iritziz “auzoki-deen askatasuna murriztuko da eta haien intimitaterako eskubidea borxatuko da. Birziklatzen den edo ez zaintzen duten langileek herri-tarren bizitzako detaileak ezagutzeko aukera izanen dute: zer egun-kari irakurtzen duten, zer jan, gar-

biketa pertsonalerako zein produktu erabiltzen dute”.

Extremerak Diario de Navarra jasotako adierazpenetan dio atez atekoa ez dela “batere higienikoa eta zabor kuboak kalean uzteak herriari itxura zikina eta anties-tetikoa” emanen omen diola. Hari iruditzen zaio administrazioek herritarren bizimodua “erraztu egin behar dute, ez zaildu”. Etxarri Aranatzko Udalean Bilduk eta NaBaik lortutako akordioaren inguruan mesfidati azaldu da popularra.

Bisita

Ilbeltzaren 8an Joxi Bakaikua (Bildu), Aitor Karasatorre (Bildu) eta Migel Angel Goñi (NaBa) Saint Philbert de Bouaine (Frantziako Loirako eskualdea, Vendée departa-

tamentuan) herrira joan ziren. Han auzo-konpostajea egiten 10 urte daramate eta Sakanan eredu horri ekin nahi dieten familiendako eredu interesgarria zelako joan ziren.

>> **Irurtzun/Arakil**

Hainbat ikastetxe elkartu dira insitutu berria eskatzeko, tartean Irurtzungoa.

Parlamentuak Iruña iparralderako institutu berria eskatu du

Arakil eta Irurtzungo DBHko ikasleak hartzen dituen Biurdana masifikatuta dagoela salatu dute guraso elkarteek

UPNren kontrako eta gainontzeko alderdien aldeko botoarekin, herenegun Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza batzordeak Iruña iparraldean institutu berri bat eraikitzeke ebazpena onartu zuen. Boza alde eman zutenen iritziz “horrela bakarrik konponduko dira Biurdana institutuko masifi-

kazioak ekarri dituen oztopo tekniko, pedagogiko eta operatiboak”. Parlamentuko batzordeak Nafarroako Gobernuari eskatu dio institutu berria 2014/2015 ikasturterako martxan egotea. Bilduk, NaBaik eta I-Ek aurkeztu zuten ebazpena.

Parlamentu kanpoko aldean, bitartean, institutu berriaren aldeko batzordeko kideek kontzentrazioa egin zuten.

>> **Irurtzun**

Gurasoak, klasera

Ilbeltzaren 21ean, astelehenean, 15:20tik 17:00etara, Atakondoa eskolan

Urteak daramate Irurtzun aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Atakondoko Guraso Elkarte eta eskola beragurasoei zuzendutako tailerrak lantzen. Haietan seme-alaben heziketaren inguruko gaiak landu dira, beti ere, alde zuzenetik zehaztuta. Gurasoei familiaren harremanak eta familia bizimoduaren eta pertsonalaren kalitatea hobetzeko baliabideak eta tresnak eskaintzeko helburuz antolatuta dute orain Guraso eskola. Familien eguneroko bizimoduan sortzen diren galderak landuko dira, hauen artean: arauak, limiteak, anaien arteko zeloak, autoritatea, gatazkak, komunikazioa, bikotearen arteko erabakietan desadostasuna... Bidari elkarte profesionalak gidatuko dituzte saioak.

EGUTEGIA

Ilbeltzak 21, otsailak 18, martxoak 18, apirilak 22 eta maiatzak 20.

>> **Olatzagutia**

Adimen emozionalaren bidezko heziketa

Gurasoei zuzendutako tailerrak 6 saio izanen ditu. Izen ematea heldu den asteazkenean bukatuko da

Ongi ari ote diren, beste modu batez egin behar ote den, egunerako, egoerajakinen aurrean sortutako ardurak, kezak... maiz sortzen zaizkie gurasoei halako zalantzak. Aditu baten laguntzaz guraso izateak sortzen dituen zalantzak leundu, bideratu eta argitu nahi du tailerrak. Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eta Akelarre Ludotekak antolatu dute tailerra. 6 saio izanen dira, hileko azken ostiraletan, hau da, ilbeltzaren 25ean, otsailaren 22an, martxoaren 22an, apirilaren 26an, maiatzaren 31n eta garagarilaren 21ean. Akelarre Ludotekan 9:00etan kafea hartzera geldituko dira, tailerra, berri, 9:30etik 11:00etara izanen da. Izena 948 467 662 telefonoan eman behar da, 23a baino lehen.

SAKANA

San Antonen omenezko lau kofradiak asteburuan bilduko dira

Dorraoko, Bakaikuko, Iturmendiko eta Urdiaingo kofradiak bilduko dira

Atzo, ilbeltzak 17, San Anton eguna ospatu zen. Animaliak babes-teaz gain San Antonek abeltzainekin eta abereekin zerikusia duten lanbideak babesten ditu. Sakanan abeltzaintzak indarra izan du beti

eta, gainera, mandazain ugari izan ziren. Horrek San Antonen kofradiak herrietan sortzea ekarri zuen. Haietako lau gaur egun arte iritsi dira eta asteburuan elkartuko dira kideak.

San antondarren bilkura gutietan hildako kofradeen aldeko

meza, kontuak eguneratzea, karguak berritzea eta bazkaria izanen dira. San antondar dorrobarrak bihar 9:00etan joanen dira mezara; 12:00etan egingen dute urdiaindarrak eta 13:00etan bakaikuarrek. Iganderako utzi dute bilkura Iturmendiarrek, 11:30ean.

kulki
umeentzako kultur kirolak
Tel. 948 552 171
www.kulki.org

Iturgintza
Berogintza
eta Gasa

PEIO

659 286 344

ETXARRI KOMERTZIALA
altzari eta sukaldeak
www.comercialetxarri.com

MERKEALDIA

Beasaingo errepidea · ETXARRI ARANATZ · Tel.: 948 460 021 eta Faxe: 948 461 621

>> **Uharte Arakil****Aitortza, 7 odol-emaileri**

Igandean Aralar Mendi elkarteak bildu ziren Uharte Arakilgo odol-emaileen delegaziokokideak. Ospakizunean urrezko domina (50 emate) jaso zuen Amparo Mendinueta

Arañak. Zilarrezkoak berriz: Rosa Mª Artolak, Ana Astizek, Amaia Bergerak, Aitor Garrok, Xabier Gorritik eta Jose Olsagarre Ollak. Info + www.guaixe.net-en

>> **Etxarri Aranatz****Odol-emailen festan 9 domina banatu ziren**

Igandean Etxarriko odol emailak festa izan zen. Urrezko domina jaso zuten Jesus Baldak, Luis Igoak, Juan Jose Mundiñanok eta Adela Ruizek. 25 alditan odola ema-

teagatik domina jaso zuten Maria Jesus Arruabarrenak, Luis Miguel Biainek, Jose Antonio Ganuzak, Jose Javier Goñik eta Luis Goñik. Info + www.guaixe.net-en

SAKANA**Uholdeak berriro**

Burunda eta Arakil ibaiak atera ziren, arazo ugari sortuz

Euri zaparraden eta elurraren ondorioz, asteartean Burunda eta Arakil ibaiak gainezka egin zuten eta ibai-arrotik atera ziren, inguruko soro, belardi eta lursailak bete-betean hartuz. Ondoko herrietan izan ziren arazo gehienak: Errotzen ibaia atera zen; Irañetan baita ere; Uharte Arakilen Zamartzera eta Aralarreara darman pista itxita geratu zen, ibaia atera eta errepidea hartu baitzuen; Arruazun ibaia atera zen eta herrian obrak egiten ari direla kontuan hartuta, egoera are gehiago okertu zen; Lizarraga-bengoan ibaiak gainezka egin zuen; Urdiainen urak gainezka egin zuen zubian, eta zubia zeharkatzea ia ezinezkoa izan zen; eta Ziordian, ibaia atera zen. Horretaz aparte, gainontzeko herrietan ibai ondoan zeuden lursailak atera zen ibaia, kalteak sortuz. Eta aipatzekoa da ere Sakanako autobian arretaz ibili behar izan zutela gidariek, ur baltsa potoloak baitzeuden. Horretaz aparte, elurraren ondorioz Urbasara, Aralarreara eta Lizarragako portura joateko kateak behar zituzten ibilgailuek. Astebururako euri zaparradak eta elurra ere espero dira.



Errotzen Arakil ibaiak maila handia hartu zuen.



Ur baltsengatik ibilgailuek nahikoa traba izan zituzten.

**Gizona harrapatuta Altsasun**

Altsasun gizon bat bere autoan harrapatuta geratu zen asteartean. 80 urteko gizona Irubide aldeko baratzetara zioan bere todoterrenoan, eta Burunda ibaia atera zenez, harrapatuta geratu zen, ez aurrera ez atzera gelditu zen. 15:30ean laguntza eskatu zuen 112ra deituz eta Foruzainak eta Guardia Zibilak bertaratu ziren.

Soken laguntzaz autora hurbildu eta gizona atera ahal izan zuten. Altsasuko osasun etxera eraman zuten, hipotermia zantzuakin.

Kaltetuei oharra

Iratxe kontsumitzaileen elkarteak uholdeek kaltetutakoei euren egoeraren berri aseguru etxeei lehenbailehen ematea aholkatu die.

SAKANA**Ikasle bretoiekin elkartrukea**

Kultura eta kirolak, norberaren ohiturak ezagutaraztea dira proiektuaren ardatzak

Igandean geroztik gurean dira Bretainiako Gingamp herriko 28 ikasle eta 2 irakasle, Aralar Mikel Doneako frantses ikasleek Bretainiako ikasleekin trukea egin dute.

Igande goizean bueltatuko dira etxera, baina bitartean Altsasuko institutua ezagutu, alkatearen harrera, herri kirolak, txalaparta, dantza eta euskara tailerrak, Iruñera eta Bilbora bisitak, eskalada... Egitaraua aurrera eramateko hain-

bat irakasleren inplikazioa ezinbestekoa izan da. Apirilean bueltatuko diete bisita sakandarrek eta orduan frantsesa praktikatzeko aukera izanen dute. Bitartean ikasleek teknologia berrien bidez harremana mantenduko dute. Gainera, klaseetan egindako lanak ere elkar trukatu dituzte.

Eraginkorra

Institutuko frantses mintegiko arduradun Batirtze Cabellok azaldu digunez pasa den urteko esperientzia "oso-oso positiboa" izan zen.



Elkar-trukean parte hartzen duten ikasleak.

Ikasle eta irakasleek egindako balorazioa "oso baikorra" izan zen. Cabellok aitortu digu trukearen ondoren klasean ere aldaketa "izu-

garria" nabaritu zuela. "Aurretik irakasleari frantsesez aritzea zaila izaten da, baina bueltan askoz gehiago saiatzen ziren frantse-

sez". Halako proiektuek ikasleei "motibazio oso handia" ematen diela azaldu digu irakasleak. Info + www.guaixe.net-en

uharte arakilgo udala**ALDAKETA ARAU SUBSIDIARIOETAN HASIERAKO ONESPENA**

Uharte Arakilgo udalak, 2012ko abenduaren 27an egin osoko bilkuran, erabaki zuen aldaketa xehakaturia hasiera batean onestea Uharte Arakilgo Arau Subsidiarioetan, lurzoru urbanizazioaren jarduerak eta eraikuntza erabilerei dagokienez.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzako buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 79.3 eta 74. artikuluko bete beharrez, espedientearen jendaurrean egon da hila batean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita; epe horretan, interesdunak eskura izan dute espedientearen udal bulegoetan, azter dezaten eta bidezkoak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten.

Uharte Arakilen, 2012ko urriaren 14an.
Alkate udalburua, Javier Rodríguez Astiz

**Guaixe erakusleiho lehiaketa**

Non daude aste honetako Guaixearen azalak?

Bilatu Beleixeguaixe txartela duten Sakanako komertzioetako erakusleihoetan Guaixearen asteroko azala

Hilabete akaberan gutxienez Guaixea egon den 3 komertzioaren izena bidali
zorion@guaixe.net helbidera edo **Bierriken bulegora** ekarri
Foru plaza 23, Altsasu

Saria Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea



» Altsasu

Sodenak Sunsundegui iturria itxi dio

Langileek Nafarroako Gobernuari enpresaren etorkizunaren finkatzean busti dadila eskatu diote

Aurreko ostiralean Sunsundegui kudeatzen duen Sodena enpresa publikoko ordezkariak, Nafarroako Gobernuako eta enpresa batzordea (UGTk 5, ELAk 4, LAB 3 eta independente 1) bildu ziren. Sodenak jakinarazi zuen Sunsundegui ez diola babes ekonomiko gehiago emanen. Langileei eskatu dien zuhurtzia gabe, Sodenak publiko egin zuen hartzekodunen aurre-lehiaketa aurkeztu duela. Langileen iritziz, “arduragabeak” izan zen iragarpena. Horrek hornitzaile eta bezero asko lantegira kezkatuta deitzea ekarri du.

Langileak batzarrean bildu ondoren, haien ordezkariak adierazi dute Sodenaren erabakiak Sunsundeguiaren etorkizuna “larriki baldintzatzen du”. Horregatik, enpresa batzordeak dagozkion azalpenak eta lantegiaren etorkizuna bermatzeko konpromisoak eskatu ditu. Hori dela eta, langileen ordezkariak “trantsizio epe bat” eskatu dute, “industria egitasmoa sendotuko duen alternatibaguztiak aztertu ahal izateko”. Hilaren 9tik astelehenera arteko izpen larroak geldirik izan ditu zuzendaritzak. Haiek martxan jarri dira langileek hala



Enpresa batzordeko ELAko eta LABeko kideak gaurko manifestaziora dei eginez. UGTk ere deitu du.

eskatu ondoren.

Gehiengoaren salaketa

Enpresa batzordean gehiengoak duten ELAk eta LABk atzo egindako prentsaurrekoan “Sodenak Lurdes Goikoetxea lehendakari-ordearen laguntzaz egindako kudeaketa arduragabea” salatuz zuten. Baita 3 urteko kudeaketan Sunsundeguiaren zorra bikoiztu egin dela. Egundun 36 milioikoa da. “Ezkutukeria eta itxieraren mamuarekin eginiko xantaiak gero eta okerragoa den lan-harreman eredu gero eta eskasagoa ezarri du”. Egiturazko arazok konpondu ez eta dirua ekoizpe-

na hobetzeko ez dela inbertituz salatu dute ELAk eta LABek.

Bi sindikatuak, bestalde, Nafarroako Gobernuari leporatu diote orain arte sinatu diren akordio guztiak ez dituela bete. “Sekula ez du aurkeztu enpresaren benetako arazoak aurre eginen dien benetako bideragarritasun planik”. ELAk eta LABek Nafarroako Gobernuari Sunsundeguiko produktua errentagarri eginen duten inbertsioak eskatu dizkiote. Horren alde apustu egitea. “Lantegia ixtearen erabakia haiena da soilik”. Berriro ere nabarmendu dute Sunsundegui produktua eta merkaturia duela.

Manifestazioa

Sunsundeguiaren etorkizuna eta Sakanako etorkizunaren defentsan, konpromisoak orain. Lelo hori izanen du enpresa batzordeak gaur, 18:30erako, deitu duen mobilizazioak. Altsasuko Foru plazatik aterako da.

zuten “jendeak pentsatzen duenaren kontra gobernuak ez du dirua sartu. Abalak eta maileguak izan dira. Enpresa urtero 1,7 milioi euro pagatzen ari da interesetan. Etekinak izanez gero, irabazien %10-20 artean izanen litzateke”.

UGT-MCAko Lorenzo Riosek prentsari adierazi dionez, aldeek denbora beharko dute lantegia zabalik mantentzeko eman beharreko urratsak zehazteko. Lehen urrats gisa, enpresak, langileek eta administrazioak industria plan bat zehaztea izanen dela adierazi zuten. Proiektu berriak erakartzeko lan egitea eta, azkenik, “ados-tutako doikuntza gogorrak hartu beharko dira. Erabaki zail baino beharrezkoak izanen dira”. UGTko kideak aurre-lehiaketa bertan behera utzi beharra nabarmendu zuten eta Sunsundeguiaren zorra birnegoziatzea proposatu zuten.

» Lakuntza

Hemen dira San Saastin festak

23. danborradan Anastasio Lazkoz eta Joxe Andueza omenduko dituzte

Gaur hasiko dira San Saastin festak, igandera arte luzatuko direnak. Krisiaren eraginez egitarau xumea prestatu du Udalak eta festek 4 egun izan beharrean 3 izanen dituzte. Baina ez dira faltako lakuntzarrek beresentitzen dituzten ekitaldiak, auzateak eta beste. Esaterako, gaur piperropilik onenak aukeratuko dira, San Saastinetarako propio prestatzen ziren aniseko opil bereziak. Bihar, eguraldiak uzten badu, erraldoiak eta buruhandiak aterako dira. Eta gauerdian Lakuntzako Pertza elkarteak antolatutako 23. danborrada burutuko da, Joxe Floresek eta Ricardo Aretak gidatuta. Aurreten jubilatutako berri den Anastasio Lazkoz apaiz ohia eta urte luzez Aralar Txirrindulari Taldean lanean dabilen Lantzenekoa etxeko Joxe Andueza omenduko dituzte, urte luzeetan egindako lana eskertzeko.



Igandean, San Saastin egunean, San Saastin ermitako erromeriak ezin du huts egin. Bertan txokolatea, piperropilak eta auzatea dastatuko dira. Arratsalderako danborrada txikia prestatu dute, eta San Saastin egunean ohikoa den Alkate Dantza dantzatuko zaie alkate eta zinegotziei.

Egitaraua

- » Ilbeltzak 18, ostirala**
19:30ean Txupinazoa, auzatea eta piperropil txapelketa.
20:00etatik 21:30era Musika DJ Juan.
21:30ean Zezenzuskua.
24:00etatik 2:00etara Musika DJ Juan.
- » Ilbeltzak 19, larunbata**
12:30ean Lakuntzako erraldoi eta buruhandiak.
13:00etan Auzatea herriko plazan.
17:30ean Irrien lagunekin kanta eta dantza antzezlan herriko frontoian.
18:30ean Txokolatada herriko frontoian.
19:30ean Auzatea herriko plazan.
20:30ean Goseraren kontzertua.
22:00etan Zezenzuskua.
24:00etan Danborrada.
1:00etatik 2:00etara Musika DJ Juan.
- » Ilbeltzak 20, igandea**
6:00etan Aurora
11:00etan Erromeria San Saastin ermitara.
12:00etan Meza San Saastinen.
13:00etan Auzatea San Saastinen.
18:00etan Danborrada txikia.
18:30ean Dantzari txikiak.
19:00etan Alkate dantza.
19:30ean Auzatea.
19:30etik 22:30era Musika Amets taldearekin.

» Olatzagutia

San Sebastianen omenez, ermitara

Olatzagutiko Goienkale eta Urbasa etorbide artean dagoen San Sebastian ermitan domeka eguerdian elizkizuna izanen da. San Sebastianen omenezko mezaren

ondoren, auzotarrek auzatea eskainiko dute. Arratsaldean, 17:00etan, arrosarioa erretratuko da San Sebastian ermitan eta ordu erdi geroago bildutako guz-

tiendako txokolatea eta erroskillak banatuko dira. Garai batean Olatzagutiak izan zituen bost ermitetako bat da igandean zabalduko dena.

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN AMETSAK.

“GIZARTEAREN GARAPENEAN LAGUNTZEKO IKERLARI IZAN NAHI NUEN ETA UNIBERTSITATEAK ATEAK IREKI DIZKIT.”

Alaitz Zabala, Biomaterialen ikerketa lerroko ikerlaria.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR

ATE IREKIAK

Goierriko campusa

INGENIARITZA URTARRILAK 24
osteguna, 17:30 **ORDIZIA**

902 110 436
WWW.MONDRAGON.EDU/PREST

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI ↑

IPAD mini bat IRABAZI
ingeniaritzagoierrin.com



GRUPO TANATORIO

IRACHE

TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es



Amaia Gaztelu Ollo

I. urteurrena

Gugandik urruti egon arren, beti izango duzu leku bat gure bihotzetan, beti gertu sentitzen zaitugulako.

Zure koadrila Beti-Txukunak

Lakuntzan, 2013ko ilbeltzaren 18an.



Maria Angeles Sanz Aizpun

Gure bihotzetan egongo zara beti

1960ko zure kintoak

Etxarri Aranatzen, 2013ko urtarrilaren 2an.



Hainbat aukera

Galdetu

948 564 275

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorian@guaixe.net

Higiezinak

ETXEIBIZITZA

SALGAI

Etxea salgai Etxarri Aranatzen. 170m karratu 3 solairutan banatuta. Garaje handia beheko solairuan. Prezioa 210.355 €. Telef: 645- 73 67 84.

Etxea salgai Ihabarren. Telefonoa: 678- 23 40 91.

Oparitakoak

Txakurra oparitzen da. Golden Retriever arrazako 4 urteko txakur arra. Oso jatorra, lasaia eta haurrak gustoko dituen. Otsai du izena. Interesatuak hots egin 615- 56 93 77 telefonora.



Galdutakoak

Mugikor bat Altsasun galdu zen. Urtarrilaren 6an. Opatu duenak, mesedez, hots egin dezala 617- 61 60 85 telefonora.

Ikastaroak

AESek ikastaro hauek antolatu ditu.
“Egitasmoak kudeatzeko tresnak” izena emateko epea luzatu da, 30 ordu. “Lan erreforma eta bere inplikazioak enpresan” urtarrilaren 31tik otsailaren 14ra. “Finantzak finantziero ez direnendako: analisi ekonomiko errezak”, otsailaren 11etatik 26 arte, 25 ordu. “Komunikazio eraginkorra bezeroarekin” apirilaren, 20 ordu. “Logistika eta stocks: kudeaketa” otsaila-martxoa, 20 ordu. “Sare sozialak enpresan eta on line erreputazioa”, otsailaren 19tik martxoaren 21era, 30 ordu. “Arazoan konponbideak eta Windows 7ren optimizazioa”, otsailaren 4tik martxoaren 6ra, 30 ordu.

Harria lantzeko tailerra Etxarri Aranatzen. Urtarrilak 19, 26 eta otsailak 4 (luzatu daiteke). Dohainik. Izena emateko kultura@etxarriaranatz.com, 948- 46 09 30 eta udal bulegoan.

UGTk ikastaro hauek antolatuko ditu.
“Soldadura” urtarrilaren 28tik martxoaren 6ra; “Eskorga jasotzailea gidatzeko” otsailaren 16tik apirilaren 16ra; “Planoen interpretazioa” martxoaren 4tik 21ra; “Testu-tratamendua” martxo-

aren 9tik apirilaren 20ra; “Lehengaien manipulazioa” apirilaren 2tik 29ra; “Eskorga jasotzailea gidatzeko” apirilaren 6tik maiatzaren 4ra; “Soldadura TIG” maiatzaren 4tik 25ra (Iruñean); “Elektrezitatea I” apirilaren 8tik maiatzaren 20ra; “Excel aurreratua” maiatzaren 6tik 23ra.

FOREM Navarrak eta CCOOk antolatutako ikastaroak.

Informazio gehiago: 948- 13 66 88 eta <http://www.foremnavarra.org/cursos/autonomico.php>.

Lehiaketa

VII. Mikro-ipuinen lehiaketa. Pamiela argitaleak eta Euskara Kultur Elkargoak antolatutak. Nafarroa osoan D eta A ededuetako maila guztietan ikasten duten ikasleei zuzenduta. Idazlanak onartzeko epea 2013ko urtarrilaren 31a arte amaituko da. Informazio gehiago: www.euskara-kultur.org/eus/arauiak-2012.

Palindromo lehiaketa deitu du AEDK.

Palindromoa: aurretik atzera naiz atzetik aurrera, berdin irakurtzen den hitza edo esaldia. Epea: otsailaren 15a. Informazio gehiago www.aedel-karteia.com.

5. Elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa.

Lanak bidaltzeko epea apirilaren 19 arte izango da. Informazio gehiago: www.elkar.com/lehiaketa.

Oharra

Odol emaleen autohemoteka Irurtzunen. Otsailaren 5ean, Irurtzunen, arratsaldean.

Lakuntzako Parkea Martxan saskien zozketako zenbaki sarituak. 1. saskia: 01312 (Eva Cerviñok saldua); 2. saskia: 08779 (Cristina Razkinek saldua); 3. saskia: 04131 (Mari Jose Arregik saldua); eta 4. saskia: 05770 (Oihana Aldabek saldua). Eskerrik asko Lakuntzako komertzio, taberna eta denda guztiei eta parte hartu duzuen guztioi.

Saski saritua Etxarri Aranatzen. San Donato eskolako Guraso Elkarteak antolatutako goizeko gelarako saskiaren zenbaki saritua 147 zenbakia izan da eta saritua Sara Beloki.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak, 3008 0093 66 2460985811 kontu zenbakian.

Pikuxar Mus Txapelketa azkarra. Hilabetearen

azken ostiralean. Gaueko 22:00etan. Apuntatu ordu bat lehenago. Partidak 2 txikotara, eliminatorki. www.blogak.com/irurtzuneuskaraz/pikumu-txapelketa-azkarra. 5 € bikoteko. Saria: bi gazta.

Zientzia eta teknologiaren XI. Elhuyar Olinpiada.

DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleei zuzenduta dago. Izena emateko epea zabalik dago. Informazio gehiago Nagore Narbarte, Marketing saila, 943- 36 30 40 telefonoan, n.narbarte@elhuyar.com eta www.elyuhar.com helbideetan.

Oinez – San Fermin ikastola.

San Fermin ikastola dei egin nahi die etortzerik izan ez duten euskaltzale guztiei euren laguntza emateko www.nafarroaoinet.net, Laboral: 30350145661450044110, Rural: 30080077140703177022, CAN: 20540082109123939260, Kutxa: 21010970010012925384.

Zientzia eta teknologiaren dibulgaziorako 2012ko CAF-Elhuyar sariak.

Aurtengo edizioan kategoria berria izango du sariketarako: Zientzia gizartearen sorkuntza-beka. Lanak aurkezteko epea 2013ko urtarrilaren 31ra arte dago zabalik. Informazio gehiago: cafelhuyarsariak.elhuyar.org.

Auzolana Josefina Arregui klinikan.

Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.

Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com.

Eskuratu zure Beilexeguaixe txartela.

50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean: www.guaixe.net.

Etxeko ogirik nahi? Sukaldea margotuko al didazu?

Trukatu zure denbora. Ordu bat-ordu bat. Eska ezazu informazioa Larrezabal denboraren kutxan, larrezabaldk@inigoarritza.com posta elektronikoa.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko.

Eliza katolikoak,

Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda.

Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarritik edo hornitzaile desberdinekin eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarria eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ospina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina.

Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehasak; ohe arropa; esku oihalet; sukaldetako tresneria; idatzeko makina; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eramane: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan.

Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzen, astearteetan Irurtzun eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakana-mank.com posta elektronikoa.

Gazteendako sexualitate aholkularitza .

Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazte-

JAIOZAK

- **Axio Saez de Adana Larrañaga,** azaroaren 20an Bakaikun.
- **Intzara Bumiller Ormazabal,** abenduaren 18an Bakaikun.
- **Jare Berastegi Armendariz,** ilbeltzaren 5ean Arbizon.
- **Unax Aristizabal Galan,** ilbeltzaren 5ean Altsasun.
- **Iruñe Esteban Goñi,** ilbeltzaren 5ean Uharte Arakilen.
- **Zeian Elizondo Azpilikueta,** ilbeltzaren 11n Etxarri Aranatzen.

HERIOTZAK

- **Aurora Beneitez Cembranos,** ilbeltzaren 3an Altsasun.
- **Migel Angel Mazkarian San Roman,** ilbeltzaren 5ean Altsasun.
- **Felisa Urmeneta Maiza,** ilbeltzaren 9an Etxarri Aranatzen.
- **Rosa Calleja Marzo,** ilbeltzaren 11n Altsasun.
- **Maria Asunción Pozueta Dorronsoro,** ilbeltzaren 12an Ziordian.
- **Jose Manuel Araña Leiza,** ilbeltzaren 14an Arbizon.
- **Marcelina Flores Arregi,** ilbeltzaren 14an Lakuntzan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

ria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaitez Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzen du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Futbola
3. MAILA
20. JARDUNALDIA
IDOIA 0 - LAGUN ARTEA 0 Lagun Arteak Idoiaeren erasoei eusten jakin zuen. Nahiz eta bigarren zati ia osoa jokalaria bat gehiagorekin egon, lakuntzarrez ez zuten kontrako atean asmatu eta soilik puntu bat ekarri zuten Oteizatik.
Sailkapena >>
1. Cirbonero47 p 10. Lagun Artea27 p
Asteburuko jardunaldia
LAGUN ARTEA - SAN JUAN (Larunbatean, 16:00etan, Lakuntzan)
ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa
15. JARDUNALDIA
BETI KOZKOR 0 - ETXARRI ARANATZ 1 AMIGÓ 2 - ALTSASU 0 Lekunberriko lehia bizian gol aukera politak izan zituzten Etxarri eta Beti Kozkorrek, baina Aritzek gola sartu eta 3 puntuak ekarri zituen Etxarrira. Bestalde, Amigók hasieratik lotu zuen partida eta atsedendaldira 2 goleko errentarekin joan zen. Altsasu saiatu zen, baina ezin izan zuen egoerari buelta eman eta punturik gabe itzuli zen etxera.
Sailkapena >>
1. San Juan40 p 10. Etxarri Aranatz15 p 11. Altsasu14 p
Asteburuko jardunaldia
AMIGÓ - ETXARRI ARANATZ (Igandean, 17:00etan, Amigón) ALTSASUK atsedean jardunaldia du.
ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA
15. JARDUNALDIA
ELOMENDI 6 - ZALDUA 2 EGIARRETA 2 - APOLO 3 15. jardunaldian galdu egin dute Zalduak eta Egiarretak
Sailkapena >>
1. Unziti19 p 5. Zaldua14 p 7. Egiarreta11 p
Asteburuko jardunaldia
BIDEZARRA-ZALDUA (zehaztu gabe) SANTA KRUZ - EGIARRETA (larunbatean, 17:00etan, Larrabiden).

Areto futbola
SAKANAKO TXAP - IKER KIROLAK
Sakanako 22. Areto Futbol Txapelketa-Iker Kirolakeko 9. jardunaldia jokatuko da bihar.
9. jardunaldia (bihar, larunbatean, Altsasun)
ASS APPLE - AUZOMOTOJORIK PIPEROXKI - PATINTER AREZPE- BILTOKI

Saskibaloia

Altsasuko CBASKek asteburuak utzi duena

EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILA
2. MAILA AUTONOMIKOA
ALTSASU CBASK 48 - PAZ DE ZIGANDA 70
Sailkapena >>
1. Gazte Berriak B17+2 p 5. Altsasu CBASK10-10 p
Asteburuko jardunaldia
NAVARRO VILLOSLADA - ALTSASU CBASK (larunbatean, 17:45ean)
GIZONEZKOEN JUNIOR MAILA
1. MAILA AUTONOMIKOA
ALTSASU CBASK 23 - SAN IGNAZIO 65
Sailkapena >>
1. Oncineda19+2 p 11. Altsasu CBASK11-5 p
Asteburuko jardunaldia
SAN CERNIN BCN - ALTSASU CBASK (Igandean, 12:00etan, Iruñean) *OHARRA: Gainontzeko kategorien informazioa www.guaixe.net-en .

Ipar eskia

Sakanan ipar eski ikastaroa eta zeharkaldia antolatuko dituzte

INTERESATUEN IZENAK JASO NAHI DITU MANKOMUNITATEAK



Eskiatzaile taldea iaz Arbizu parean eskiatzen.

Sakana toki ederra da ipar eskia egiteko, Urbasa, Andia eta Aralar natur gunek bertan ditugulako. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak ipar eski zeharkaldia antolatzen du urtero, elur baldintzak egokiak direnean. Eta aurtten ere asmo hori dauka. Horretaz aparte, ipar eski ikastaro bat antolatu nahi du kirol zerbitzuak, inoiz ipar eskia egin ez dutenek ikasteko aukera izan dezaten. Kontua da ezin dela ziurtatu noiz izango den ikastaroa, ezin baita jakin elurra- ren egoera nolakoa izanen den. Baina ilbeltza, otsaila edo martxo- ko igande goiz batean litzateke, elurra- ren arabera.

Interesatu- en izenak jaso
Aipatu jarduera horien propagan-

da denbora askorekin ezin denez egin, kirol zerbitzuak deia egin du ipar eski zeharkaldietan edo ipar eski ikastaroan interesa dutenek Mankomunitatera deitu (kirol zer- bitzua: 948464866 edo kirolak@sakana-mank.com) eta izena eman deza- tela, inolako konpromisorik gabe. “Horrela, zeharkaldi edo ikastaro- en data zehazten dugunean izena eman dutenek informazio zuzena jasoko lukete, eta azkar” adierazi du Mankomunitateko kirol tekni- kari Amaia Gerrikagoitiak.

Eski materialaren inguruan kirol zerbitzuak eski materiala izan eta erabiltzen ez dutenei dei egin die materiala Mankomunita- tera eman dezatela, materiala ez dutenek eskian murgiltzeko auke- ra izan dezaten.

Kiroldegia

Kirol munduan lan egin nahi duzu?

MANKOMUNITATEKO KIROL ZERBITZUAK 5 IKASTARO ANTOLATU DITU, KIROL MUNDUAN LAN EGIN NAHI DUTENEI ZUZENDUTA

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Nafarroako Kirol Ins- titutuaren eta Altsasuko eta Arbi- zuko Udalen laguntzarekin, pre- takuntza ikastaroak eskainiko ditu urte honetan barna, kirol munduan lan egin nahi dutenei edo presta- kuntza zabaldu nahi duten guztiei begira. 5 ikastaro izango dira guz- tira. Izena ematea zabalik dago.

Ikastaroak
Kirol hastapeneko ikastaroa (api- rila bukaeran eta maiatzean, Altsa- sun)
Haurren kirol eskoletan –fut- bola, saskibaloia, txirrindulari- tza, pilota...– dabilten edo ibili nahi duten begiraleei zuzendua bereziki. 16 urtetik gora. Apirila- ren 30ean eta maiatzaren 2an, 7an,



Soroslea lanean.

9an, 14an eta 16an. 18:30etik 21:30era. Prezioa: 120-150 euroen

artean, kirolaren arabera eta espe- zifikokoak dituen orduen arabera. Kirol Institutuak diru-laguntza emango du, %80ra iritsi daiteke- ena.

Desa-desfibriladore ikastaroa (martxoaren 7an eta 8an, Lakun- tzan, 16:30etik 20:30era)
Sorosleei (aurten sorosle ikas- taroa egingo dutenendako izan ezik), udal langileei, irakasleei eta lehen sorospentetan interesa dute- nei zuzendua.

Uretako sorosle ikastaroa (otsai- letik maiatzera, asteburuetan)
Ostiral arratsaldetan, larun- bat goizetan eta arratsaldetan eta igande goizetan, Altsasun edo Arbizun. 16 urtetik aurrera. Pre- zioa: 450 euro. Diru-laguntzak izan- go dira.

Irakasleendako oinarrizko bizi euskarria ikastaroa (maiatzean, Lakuntzan)
4orduko ikastaroa, arratsalde- z. Sakanako ikastetxeetako irakas- leei eta hezkuntza proiektuan par- te hartzen duten guztiei zuzendua.

Desfibriladore erreziklatze ikastaroa (lasteailan, Lakuntzan)
2011n desfibriladore ikastaroa egin zutenei zuzendua.

Izena emateko

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com). Otsailaren 13a bai- no lehen.

CONSTRUCCIONES ALZATE s.l.

ALZATE ERAIKUNTZAK s.l.

Zubeztia 21, Altsasu
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600
www.construccionesalzate.com

mutuavenir:
aseguruak eta zerbitzuak

Susana Mateo

mutuavenir

948 468 586
Zubeztia kalea, 2 • Altsasu
susanamateoperal@hotmail.com
www.mutuavenir.com

PPSOE,

ETB

digitala

Nafarroan

orain!

Berria erosi taldea

xapatero
taberna

948 460 162

Etxarri-Aranatz

Atletismoa

ALTSASUKO 31. KROSA-NAFARROAKO BETERANOEN TXAPELKETA

Lohian, Casado eta Abrego nagusi

NAFARROAKO BETERANOEN TXAPELKETA CASADOK ETA CASARESEK IRABAZI ZUTEN. AURRETIK NAFAR KIROL JOLASEN KROSEKO 2. JARDUNALDIA JOKATU ZEN. PROBA NAGUSIAN LEHEN SAKANDARRA JAVI MORENO ALTSASUARRA IZAN ZEN

Altsasuko 31. Krosa

Gizonezkoak (7.490 m)

1.	Javier Antonio Casado	25:37
10.	Javier Moreno	27:04
30.	Urko Berdud	28:22
36.	Felix Benjumea	28:47
49.	Mikel Berdud	29:50
51.	Kike Aldasoro	29:56
55.	Casi Estarriaga	29:59
63.	Walid Ballouk	30:30
74.	Juantxo Azurmendi	31:35

Emakumezkoak (5.750 m)

1.	Nerea Abrego	22:11
----	--------------	-------

Nafarroako Beteranoen Txapelketa

Gizonezkoak:

1.	Javier Antonio Casado	25:37
----	-----------------------	-------

Emakumezkoak:

1.	Ana Casares	23:05
----	-------------	-------

Dantzaleku Sakana klubak hainbaterakunde eta babesleren laguntzarekin antolatuta, Altsasuko Dantzaleku paraje ederrek Altsasuko 31. Krosa hartu zuten igandean. Kategoria guztiak kontuan hartuta irteera hartu zuten 292 korrikalariak hotzari eta ibilbidean barna zegoen lohiari egin behar izan zieten aurre, baina kategorianagusi kolasterketak jokatu zirenean ez zuten euririk egin.

Lehenik eta behin kategoria txikiko lasterketak jokatu ziren, benjamin mailatik hasita jubenil mailaraino. Nafar Kirol Jolasen Kros Txapelketako 2. jardunaldia zen Altsasun igandean jokatu zena, eta guztira 179 neska-mutiko aritu ziren, espero baino gehiago, eguraldi txarra kontuan hartuta.

**Casado eta Abrego aurreratu-
ta iritsi ziren**

12:45ean abiatu zen emakumezko-



Javi Moreno sakandar azkarrena izan zen, 10. postuan sartuta. Behean Nerea Abrego, emakumeen garailea.

en proba (5.750 m). 27 korrikalariak Dantzaleku inguruko paraje ederretan prestatutako zirkuituari 3 itzuli eman zizkioten. Nerea Abregok eraso jo zuen bigarren itzulian eta helmugara bakarrik iristea lortu zuen (22:11). 43 segundora iritsi zen Maitane Melero (22:54) eta 54ra Ana Casares (23:05). Nafarroako Beteranoen Txapelketa aintzat hartuta, Ana Casares izan zen beterano onena, Uxue Fraileren eta Eva Bustoren aurretik. Ez zen emakume sakandarrik aritu. Taldeka Hiru Herri irabazi zuen, Beste Iruñaren eta Ribera Atleticoren aurretik.

Gizonezkoen proba hasi baino lehen minutu bateko isilunea gorde zen Fuentes Dutor fundazioko

presidentea zen Juan Maria Fuentesen alde. 86 korrikalarik hartu zuten irteera, zirkuituari 4 itzuli emateko (7.490 m). Antonio Casado zen faborito nagusia eta ez zen sorpresarik egon. Hasieran Rafa Maritxalarrek tiratu zuen, Antonio Casado eta Migel Aristu gertu zituela. Lehendabiziko itzulian erreleboak egin zituzten, baina aurrerago Javier Antonio Casadok erritmoa azkartu zuen eta atzean utzi zituen guztiak, helmugara bakarrik iritsiz (25:37). 16 segundora sartu zen Gabriel Garin (25:53) eta 22 segundora Rafa Maritxalar (25:59). Casadok, halaber, Nafarroako Beteranoen Txapelketa irabazizuen, hirugarrenez jarraian Dantzalekun. Taldeka Hiru Herri gailendu zen,



Beste Iruña eta Ardoiren aurretik. Aritu ziren 8 korrikalari sakandarraren artean Javi Moreno altsasuarra izan zen azkarrena, 10. postuan sartuta (27:04).

Ez zen sari metalikorik egon. Altsasuko kroseko irabazleek txapela, momotxorroa eta sorginak jaso zituzten, eta gainontzeko sari-tuek trofeoak.

Areto futbola

Errege Kopatik kanpo geratu da Triman

Asteazkenean Errege Kopako final laurdenetako lehia jokatu zuen Triman Navarra Xotak Santiago Futsalen kontra. Ezinezkoa izan zen final erdietara sailkatzea, Trimanek garesti ordaindu baitzuen punteria falta. Gol aukerak sortzen zituen Irurtzungo taldeak, baina kontrako atean asmatu, ordea, ez. Horrela, 0-3 aurreratu zen Santiago. Araça atezain-jokalari jarri zuen Imanol Arregik, eta Rafa Usin eta Eseberriren golei esker 2-3 gerturatu zen Triman. Baina berdinketa lortzea ezinezkoa izan zen eta, pena handiz, Errege Kopari agur esan behar izan dio Trimanek. "Golak sartzeko izan ditugun arazoengatik joan zaigu partida" nabarmendu zuen Imanol Arregik.

Ohorezko mailan Fisiomedia Manacorren kontra berdindu ondoren, sailkapen orokorrean 5.a da Triman (24 puntu), Bartzelona liderratik 10 puntura. Manacorren kontra ere golak sartzeko arazoak izan zituen Trimanek eta arazo horiei irtenbidea eman beharko die asteburuan Marfil Santa Colomaren (7.a, 16 punturekin) kontra duen partidaren.



Aldabideko neskek lidergoa jokoan

Areto futboleko emakumeen senior mailan soilik talde sakandar bat dugu lehian: Arbizuko Aldabide. Aldabidekoek, gainera, primerako hasiera eman diote ligari, orain arte jokatuak jota guztiak irabazi baitituzte. Asteburuan Subiza 2-4 hartu zuen menpean Aldabidek. Sailkapen orokorrean bigarrenak dira, 27 punturekin, Gima Ribera liderrarekin puntutara berdinduta.

Hortaz, asteburu honetan lidergoa dute jokoan aipatu bitaldeek. Bihar, larunbatean, Aldabideketxean jokatuko du, Arbizuko kiroldegian, 19:00etan, sailkapenean 12.a den Idoia taldearen kontra. Ea arbizuarrak senior mailako gorenean ikusten ditugun.

ITURMENDI ETA ARBIZU SENIORREN MAILA BEREZIAN

10 talde ari dira lehian gizonezkoen senior maila berezian. Tartean bitalde sakandar ditugu: Arbizu kirol taldea eta Iturmendi futbol taldea. Orain arte jokatuak 10 partidetatik 7 partida galdu ditu Arbizuk eta 9 Iturmendik. Hortaz, hasiera ez da baterexaumurra izan. Asteburuan Ciudadela taldeak 8-5 irabazi zion Arbizuri, eta Olite taldeak 6-2 hartu zuen menpean Iturmendi. Ibararte da gizonezkoen senior maila bereziko liderra (25 puntu). Arbizu 8.a da sailkapenean (9 puntu). Iturmendiazkenada, 10.a (1 puntu). Bihar, larunbatean, Arbizuk Olite taldearekin jokatuko du Arbizuko kiroldegian, 16:30ean. Iturmendik, aldiz, lararte liderra hartuko du larunbatean, 17:00etan, Uharte Arakilgo frontoian.



Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sariak banatuta

Ostiralean Etxarri Aranazko Lasa Kirolak dendak hartu zuen Sakanako IX. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Saria txapelketako sari ematea. Jakina denez, aipatu koparako 2012an jokatuak lau probek puntuatzen zuten: garagarriaren 2ko Aitzkozar Herri Krosak, irailaren 22ko Ergoienako IX. Birak, azaroaren 3ko Sakanako XII. Herri Lasterketak eta abenduaren 8ko Altsasuko Barricarteren Oroime-nezko Oinezko Lasterketak.

**Kopa Moreno eta San Marti-
nendako**

Aipatu lasterketetan aritu ziren sakandarren lana puntuatuta, gizonezkoetan Javier Moreno altsasuarra irabazi du kopa, Juantxo Arregiren eta Urko Berduden aurretik. Emakumezkoetan Erkuden San Martin nagusitu zen



Saritutakoak Lasa Kirolak dendako arduradunekin, kirol teknikariarekin eta Dantzaleku-Sakanako arduradunekin.

Jone Pelaezen eta Edurne Jakaren aurretik. Lehenek 80 euro jaso zituzten kirol materialean, bigarrenek 60 euro eta hirugarrenek 40 euro. Bestalde, kopako lau las-

terketetan parte hartu zuten korrikalarien artean sari ederra zozketatu zen: gau bat eta gosaria bi pertsonendako Lizarragako portuko aterpean. Jose Mari Mercero korri-

kalari beterano unanuarri ego kitu zitzaion saria.

Sakanako Atletismo Kopako sailkapen osoa www.sakanamank.com-en kontsultatu daiteke.

Pala

Gizonen Pala Txapelketan aritzera animatu du Mank-ek

Sakanako Mankomunitateak gizonendako Sakanako Pala Txapelketa antolatu du, Etxarriko Gure Pilota Taldearen eta Olaztiarren laguntzarekin. Bikoteka jokatu da. Txapelketa atzeratu da. Otsailaren 1ean hasiko da. Izena ematea zabalik dago eta Kirol Batzordeak bertan aritzera animatu dituzte sakanarrak. Bikote bakoitzak 40 euro ordaindu beharko ditu.

IZENA EMATEKO

Partidak Etxarri Aranatz eta Olaztikopilotalekuetan jokatu dira, ostira eta larunbat arratsalde eta igande goizez. Izena emateko ondoren bati hots egin behar zaio: Migel Aristorena (638 13 82 31), Fermin Zornoza (661 61 39 82) edo Mank-eko Kirol Zerbitzua (948 46 48 66, kirolak@sakana-mank.com).



Txirrindularitza

Movistarrek talde aurkezpena egin du

Jose Luis Arrieta kirol zuzendarietako bat da eta Imanol Erbitik plantillan jarraitzen du

Movistar Team txirrindularitza taldeak 2013 urteko taldearen aurkezpena egin zuen ostiralean Madril. Ez dago aldaketa handirik, lider garrantzitsuenek jarraitzen baitute. 25 txirrindulariako plantilla dute. Alejandro Valverde da lider nagusia, eta Hiriberriko Imanol Erbitik taldean jarraitzen du, luxuzko laguntzaile moduan. Kirol zuzendari lanetan ariko da bigarren urtez jarraian Jose Luis Arrieta uhartearra. Taldeak pasa den urteko emaitzak hobetu nahi ditu -29 etapa garaipen eta 72 podium-, eta Valverderen helburu nagusia Tourra lortzea da. Australian eman go diote hasiera denboraldiari.

Kirolak

Hona Sakanako pilotari onenak

LARUNBATEAN SAKANAKO PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK JOKATU ZIREN ALTSASUN, GIRO EDERREAN

Finalak
ALTSASUKO BURUNDAN
Haurrak 2:
Otxoa-Igoa **16** / Cobos-Azpiroz **18**
Haurrak 1:
Goikoetxea-Petriati **9** / Olaetxea-Nazabal **18**
Kadeteak:
Otermin-Garzia **22** / Zudaire-Uztarroz **15**
Kadeteak 4 t'erdia:
J. Gabirondo **18** / I. Olmos **5**
Gazteak 4 t'erdia:
A. Gabirondo **19** / O. Arnanz **22**
Helduak: Lopez-Otamendi **22** / Murgiondo-Fernandez **12**

ALTSASUKO IÑIGO ARITZA IKASTOLAN
Aurrebenjaminak:
Albarrazin-Araña **18** / Imaz-Imaz **13**
Benjaminak 1:
Ulaia-Ulax Gabirondo **18** / Arrastia-Laso **11**
Benjaminak 2: Palomares-Erdozia **18** / Gorostiza-Martirena **6**
Kimuak 1: A. Araña-B. Gamboa **8** / J. Igoa-A. Mariñelarena **18**
Kimuak 2: Lopez de Zubiria-I. Araña **18** / Adr. Jaka-Ax. Jaka **12**

Sakanako pilota klubek antolatuta, larunbatean Sakanako Pilota



Finalista guztiek saria jaso zuten. PILOTAJAUKU

Txapelketako finalak jokatu ziren Altsasun. Guztira 11 final jokatu zirenez, 6 final Burunda pilotalekuak hartu zituen eta gainontzeko bostak Iñigo Arizta ikastolako

frontoiak. Giropolita izan zen final eta pilotari senide, lagun eta kideek giroa ederki berotu zuten. Sakanako Pilota Txapelketa Sakanako pilota klubek antolatu

dute, pilota sustatzeko eta kategoria txikikoei lehiaketan aritzea ahalbidetzeko. Txapelketan barna giro ona izan da eta pilotariak gustura aritu dira.

Pilota

Irujo-Zabaleta 4. puntuaren bila eta Gonzalez-Zubietak 2.a behar dute

LEHIAN JARRAITZEKO IRABAZTERA BEHARTUTA DAUDE GONZALEZ ETA ZUBIETA

Binakako Pilota Txapelketako lau garren jardunaldian, tamalez, Gonzalez eta Aitor Zubietak ezin izan zituzten Titin eta Merino irabazi. Gonzalez eta Zubietak ongi hasi ziren, Titin ekidinez eta Merino kargatuz. Zubietak Merino baino hobe zebilen atzean eta Gonzalez ere aurrean min egin zuen, 4-10 aurreratuz. Baina Titin jokoan sartu zenean dena aldatu zen. Errematatzen hasi zen eta Gonzalez tokiz kanpo uzten. Horrela, markagailuan 21-16 aurreratu ziren errioxarrak eta akaberan 22-20 irabazi zuten Titinek eta Merinok.

Gonzalez eta Zubietak puntu batekin jarraitzen dute. Gaur oraindik punturik gabe dauden Berasaluze VIII.aren eta Albisuren kontra irabazi beharrean daude, txapelketari aguresan nahi ez badiote. Asteazkeneko pilota aukeraketan



Zabaleta-Irujok eta Gonzalez-Zubietak irabazi nahi dute.

haserre azaldu ziren Aspek aukuratutako pilotekin eta Asegarcekoak aukeratu zituzten.

Bestalde, Irujok eta Jose Jabier Zabaleta etxarrendarrak 10-22 irabazi zieten Berasaluze VIII.ari eta Albisuri larunbatean Labriten, txapelketako euren hirugarren punta lortuz.

Garaipen eroso lortu zuten nafarrek, partida guztian barna argi dominatu ondoren. Zabaleta partidako onena izan zen eta aurreko partidetan izandako nerbioak apenas nabaritu zitzaiz-

5. jardunaldia:
Olaizola II.a-Zabala / Irujo-Zabaleta (larunbatean, 17:00etan, Bilbon. Nitro)
Berasaluze VIII.a-Albisu / Gonzalez-Zubietak (ostiralean, 17:00etan Mungian. ETB1)

kion. Bihar Olaizola II.a eta Zabala izango dituzte aurkari, lehia ikusgarria, ez bairik gabe. Puntu bateko abantaila dute Zabaletaketa Irujok, eta alde atera nahi diote arerioei. Irujok atzoez erabaki behar zuen Bilbon egongo den halaez, sordaldan dituen oinazeengatik. Bestalde, Olaizolak Zabaleta gorapatu du. "Gehien nabarmentzen ari den pilotaria da, gehien jotzen duelako" adierazi zuen.

Sailkapena
Binakako Txapelketako 4. jardunaldia jokatu da, Bengoetxea-Beroizek 4 puntu dituzte, Irujo-Zabaletak eta Xala-Barriolak 3, Olaizola II.a-Zabalak eta Titin-Merinok 2, Gonzalez-Zubietak eta Arretxe-Beginok 1 eta Berasaluze-Albisuk 0.

Amaya
Okindegia-gozotegia

ARAIA 945 314 572

ALTSASU

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua

Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185

- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...

OLAZTI 948 468 755

ETXARRI 948 461 660

kultura >>

Motxila 21; down eta gehiago

Igandetik otsailaren 3ra arte
Altsasuko Iortia kultur gunean ikusgai

No somos distintos argazki erakusketa mustukoa da etzi Altsasun. Motxila 21 talde-arendako Kutxi Romerok konposatu duen abestiaren izenburutik hartuta hori. Taldea Down Syndromea daukaten 12 gaztek osatzen dute. Motxila 21 taldeak 5 bat urteko ibilbidea eginga du eta horren isla ikusi daiteke erakusketan. Gainera,

pasa den urtean egindako bideoa ere ikusgai izanen da. Berriki diskoa argitaratu du taldeak.

Motxila 21 taldeko musikarien artean dago Aintzane Lizarraga Etxeberria (saxofoia) dorrobarra. Haiekin batera taldean 9 irakasle daude; horietako hiru ere dorrobarrek dira: Ainhoa Lizarraga Etxeberria (akordeoia), Mirian Razkin Tajuelo (saxofoia) eta Andoni Zilbeti Elia (saxofoia eta kitarra-abeslaria).



Arratoitxo pinpirina, klasikoa antzerki musikala bihurtuta

Domekan, 17:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Arratoitxo pinpirina ipuinaren moldaketa ekarriko du Glu Glu konpainiak etzi Altsasura. Antzerki musikala bilakatuta, kantak, dantzak eta komedia emanaldiaren ardatz bihurtuko dira. Protagonista, hori bai, Arratoitxo pinpirinak izaten segitzen du. Hark izugarri maite ditu soineko dotoreak eta zapata berriak. Horregatik, urrezko txanpon bat aurkitzen duenean bere ametsa egi bihurtuko da: nahi bezain beste jantzi erosi. Baina diruak izaki maltzurak erakarriko ditu, besteak beste, sagu fide-



la, katu maltzurra, oilar eroa eta Korrok txerri txiki maitagarria.

Galder Perezek sortu eta zuzentzen duen obran Leire Uchak, Ugaitz Alegriak eta Gabriel Ocina jokatu dituzte pertsonaien paperak.

di-da >>

IKASTAROA

JAIOTZA-GINTZA IKASTAROA

Sakanako belenzaleen elkarteak urtero moduan jaiotzak egiten ikasteko ikastaroa antolatu du. Porexpana landuz paretak, egurrak, zoruak, haitzak eta beste egiten ikasteko aukera emanen du ikastaroak. Martxoan egingen da eta 40 orduko iraupena izanen du. Astero 6 orduko saioak egingen dira: ostiralean 17:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara, elkartearen Iruñeko egoitzan. Interesatuak hilaren akaberabaino lehen eman behar dute izena honako telefonoetara hots eginez: 606 227 612, 616 347 511 edo 948 563 194.

283

Zenbaki hori duenak elkarteak zozketatutako jaiotza eskuratuko du. Saria jasotzeko gorago aipatutako aurreneko telefonora hotsegin.

MUSIKA

GOSE LAKUNTZAN

Arrasateko hirukoteak larunbatean, 20:30ean, kontzertua eskainiko du Lakuntzako San Saastin festetako egitarauaren barruan. Azaroaren 20an karrikaratu zuen Gosek bere 5. diskoa, disko laranja. Horretan ere hirukoak trikitia, rock ikutua eta musika elektronikoa uztartzen ditu bere abestietan. 11 abesti berriak zuzenean gozatzeko aukera eskainiko dute Ines Osinagak, Iñaki Bengoak eta Jon Zubiagak.

DJ topaketa Sorginak-en

Hiru musika estilotako disko-jartzaileak ariko dira gaur gauean Sorginak tabernan. Gaurditik aurrera DJ Nestorrek (Eztanda Irratia) rock doinuak jarriko ditu. 2:00etatik aurrera DJ NQK (Movie Brothers) musika elektronikoa eskaintza egingen du. Hari segida losu Garatek emanen dio, techno-house doinuekin.

Fusio bero pedagogikoa

Kontzertu pedagogikoarekin gozatzeko aukera izan zuten larunbatean Iortia kultur guneko lepote zuten guztiek. Musika eskolako eskolaniak eta Tik Tara taldeak kontzertua eskaini zuten. Musika-

riak ez ziren oholta gainean egotera mugatu eta publiko artean ere kantuan izan ziren. Baita publiko bera kantuan jarri ere. Emanaldia- ren aurretik ikasleak taldearen disko- korako grabazioa egin zuten.



bazterretik

Jse Luis Asensio

Angoulêmeko komiki sarituak

Ilbeltza iritsita, Angoulêmean jartzen dugu begirada komikizaleok. Bertan hilabete akaberan Europako komiki topagune garrantzitsuenak izaten da ilbeltzeko azkeneko aste-buruan. Aurturaren 10ean, baina hala ere aurreko urteko Angoulêmeko topagunean saritutako komiki biri buruz arituko naiz.

Lehen Ulli Lust egilearen "*Este es el ultimo dia del resto de tu vida*" izeneko komikia da. Egile berriendako saria irabazi zuen 2011. urtean. Komikian 80. hamarkadan egileak 16 eta 17 urte zituelarik egindako bidaia deskribatzen du, bere herrialde Austriatik Italiako hiri ezberdinetara.

Ulli Lust herri txiki batetik Viena-ra alde egin zuen bizimodu punk basati baten bila. Bertan Eli ezagutu eta batera pasaportetik gabe Italiara bidaiatzea pentsatzen dute. Kalean lo eginez, jende bitxia ezagutuz, biziaren alde basati eta goxoena dastatuz, esperientzia ugari deskribatzen du liburuan, yonki, droga eta Palermoko mafiarekin izandako harremanak barne.

Nahiz eta egileak urteak eman diseinuan eta bestelako arte grafikoetako arlotan, ez dut gehiegi atsegin erabiltzen duen marrazki inprobisatua. Binetak arkatzez eta boligrafoz eta xuri beltz zikinez egindako zirriborroak ematen dute. Bestalde egia da erraz irakurtzen dela eta nola bukatzen den jakin nahian berehala irakurtzen direla dituen orrialde mordoak. Hala ere, nerabeen joera alproja dela eta, bere 16 urteetan egindako erokeriak askotan sinestezinak ematen dute

eta sortutako zenbait arazo ume-keriak bultzatuta ematen dute.

"5000 km por segundo" lanak, bestalde, sari nagusia irabazi zuen, lanik onenaren saria hain zuzen ere. Akua relaz egindako marrazki polit eta koloretsuak guztiz ezberdin ikusten dira aurrekoaren ondoan. Bertan hiru pertsonen inguruko erlazioa deskribatzen da denboran zehar. Italiako bi mutilek, nerabe eta txoroak, auzokide berri batez agutzen dute, neska ederra benetan. Ez da sortzen inolako hirukote moduko erlazioirik, baina bai sinisteko erraza den erlazio zaila neska eta mutil hauetako baten artean. Batez ere bi mutilen arteko harreman estua galtzen den heinean, sortzen diren eztabaidak eta ezinegonak oso ondo deskribatuta daudela iruditzen zait. Hala ere liburuak ez da gazteen bizian bakarrik, baizik eta urte batzuk pasa ondoren, jada hirurak helduak direla eta bakoitzak, bere aldetik, beren bizitza egin ondoren munduko herrialde ezberdinetan, beren topaketa ere deskribatzen du. Topaketa hauetan (gazteetan bikoitea izandako bietan batez ere) oraindik ere hasieratik izandako sentimenduak, jelskorrak, ezinegonak eta segurtasun ezak hor daudela antzematen da.

Sinplea baina argia eta zuzena da lan hau, koloretan zoragarria non sentimenduak, geografia eta klima ezberdinak (protagonisten bidaietan) deskribatzen diren akua- relen bitartez irakurleak ia konturatu gabe. Istoria erakartzen ez bazaitu ere soilik marrazkiengatik pena merezi duen komikia da.

Myaku.fanzine@gmail.com

www.fanzinemyaku.blogspot.com

Neguko argazki lehiaketa

>> Saria: RAMOS dendak eskaintako MP3 bat

Argazki lehiaketaren oinarriak:

Parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarra aurkeztu dezake. Neguko argazkiak izanen da. Argazkiak Sakanan eginak izan behar dute (Aralar, Andia eta Urbasa mendiak barne). Argazki digitalak bakarrik onartuko eta jpg formatua izatea. Berririk Fundazioak beretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendaurrean erreproduzitzen eta jakina-

razten uzten dio Berririk Fundazioari, euskarri inprimatuan, Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak martxoaren 18a baino lehen aurkeztu beharko dira Berririk Fundazioaren Facebook profilaren bitartez edo @Guaixe twitter kontuaren bidez, #guaixeneguko alpainena eginez. Irabazleak nortzuk diren martxoaren 28an jakinaraziko da, astelehen. Argazkiak www.guaixe.net webgunean jarriko dira ikusgai.

Gidoi berria onduta, finantziazio bila dabil Rayo

Bernardo Atxagaren *Bi anai* lana pantailara eraman ondoren, Gabriel Arestiren *Mundu munduan* obra hartu du oinarri oraingoan Imanol Rayok. Arbi-zuarrak Mitxel Gaztanbiderekin batera ondu du gidoia. Pertsona batzuen bizitza kontatuko du filmak. Txikitan, jolasten zeudela, haietako bat hil zen. Gertakari horiek eta 25 urte geroagoko ondorioak kontatuko ditu. Guztia batu-ko duena zaldi baten bizia izanen da. Rayo filma egiteko finantzazio bila dabil gaur egun. Oraindik ez dago zehaztuta zein hizkuntzatan filmatuko duen, baina gaztelaniaz balitz *En pleno mundo* izenburua har lezake filmak.

Plaren poesia errezitaldia

Larunbatean, 20:00etan, Irurtzungo kultur etxean, sarrera doan

Antsoaingo Koldo Pla poetaren olerki errezitaldia egingen dute bihar hainbat pertsonak, tartean egileak berak. Poema emanaldiak, batzuetan gitarraren, txeloaren edo pianoaren laguntzaz, kantatuta besteetan, *Al borde de cada día* olerki liburua aletuko du.

Duela urte eta erdi argitaratutako lan horretan Plak 36 olerki bildu ditu. Egunerokotasunean ezkutatuta egilea gauzetara hurbiltzeko modua ezkutatzenda. Hala, elkarrekin bizi izandako lagunei zuzendutako olerkiak, egunerokotasunaren aurrean sortutako sentipen bereziak, Ezkabako gotorlekua eta beste jorratzen dituliburuan. Parte-hartzaileak: Inma Biurrun, Angel G^a Larraz, Fernando Eugi, Sagrario Villamayor, Irati Goikoetxea, Koldo Pla, Silvia Marambio, Ekaitz Goikoetxea (kantua), Maite Mené (gitarra eta kantua), Sonia Ganuza (piano) eta Leire Alonso (txeloa).

Igandean, 19:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean hainbat taldek kontzertua eskainiko dute

Sakanan makina bat kulture-tako jendea bizigara eta musika adierazpen ezberdinak ditugu. Horietako batzuk bilduko dira etzi Munduko Musikak kontzertuan eta horrela ibarrean dugun kultur aniztasuna ezagutzeko aukera izanenda. Abenduan Irurtzunen egindako emanaldiaren ondoren, formatu horretako bigarren kontzertua da Etxarrikoa. Emanaldiak Rafael Amorkantari argentinarren *No me llames extranjero* kantua izanen du gidari.

Musikaren bidez, elkar ezagutzeko aukera. Sakanako Mankomunitatearen Immigrazio Zerbitzuak antolatu duen kontzertuaren helburua hori da. Eta Irurtzungo musika eskolako ikasleen, Kituka Burundiren, Djembe taldearen, Youssef Kejjiren eta

Sakanako kultur aniztasuna kontzertuan bilduta



Maidar Ansaren emanaldien bidez izanen da horretarako aukera. Musikaz aparte kontzertuan sorpresak ere izanen dira.

Hainbat jatorritako musikariek haien hizkuntzan abestu eta ibarrean dugun hizkuntza aniztasuna agerian utziko dute. Sakan-

Sarrerak

Leku Onan, Kaxetan eta Etxarrialdeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuaren egoitzan eta igandean kultur etxean. 5 euro.

dar berriak euskararen errealitatera hurbildu eta hizkuntzak Sakanan bizi duen egoeraren aurrean sentsibilizatzeko aukera izan nahi du kontzertuak ere. Haiek ere euskararen alde zerbait egin dezaketela erakusteko, kontzertuko sarrekin ateratako dirua Sakanan euskarazko hedabideak sustatzen dituen Bierri fundazioarendako bideratuko dute.

Zapore klasikoko kontzertua

Larunbatean, 20:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean, Armonia rondalla eta Trasteando

Iruñeko Vergel egoitzatik Altsasura etorriko da bihar Javier Carricasek zuzentzen duen rondalla. 30 urteurreneko kontzertu bira Altsasun despidituko du Armonia rondallak eta Trasteando taldearen laguntza izanen dute. Altsasuarrek 3 kantarekin zabalduko dute emanaldia. Ondoren, “Iruñeko identitate ikur” gisa definitu den taldeari pasako diote txanda. Publiko guztiendako gogoko izanen den emanaldia eskainiko dute. Eta, horretarako, laguntzaileekin etorriko dira: Sandra Dominguez (sopranoa) eta Andoni Sarobe (baritonoa) eta Rafael Gonzalez eta Laly Jausoro jota kantariak. Emanaldia elkarrekin despidituko dute bi taldeek.



Armonia rondalla 4 biolin jolek, 6 bandurria jolek, 3 laud jolek eta 5 gitarra jolek osatzen dute. Haien errepertorioaren ardatza pasodobleak, habanerak, zarzuela zatiak eta jotak dira. Genero horretan Nafarroako tal-

derik onena da Armonia rondalla. Taldea 60 urtetik aurrerako musikariek osatzen dute. Guztiek ere musika zaletasuna izan dute eta bizi guziko eskarmentua dute musikari gisa.

Makina bat jubilatutako elkar-

eta kultur etxeetan eman dituzten kontzertuak Armonia rondallak, baita Iruñeko Gaiarre antzokian eta Baluartan ere. Atzerrian ere jo izan du. Gainera, urtero rondalla topaketa antolatzen du Iruñean.

Bazkide zozketa



ILBELTZEKO SARIA: 3 LIBURUREKIN OSATUTAKO 4 LOTE

Non erabili Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

BAIZA MOTOR

ETXARRI

Eskaintza bereziak.

KALUXA TABERNA

URDIAIN

Menu edo plater konbinatuekin kafea edo txupitoa doan, menu bereziarekin kafea edo kopa doan

CITROËN SAN MIGUEL

ALTSASU

Total olioetan %30eko deskontua. Pneumatikoen alda-

ketetan %20 deskontua.

IRUBIDE JATETXEA

ALTSASU

Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50€.

SAKANA OPTIKA

ALTSASU

%50etik gorako deskontuak

NUEVA IMAGEN

ALTSASU

%10eko deskontua edozein zerbitzutan, diruz ordainduz gero.

ARRUAZUKO OSTATUA

ARRUAZU

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupitoa doan.

LOGURE

ALTSASU

Espazioaren aldaketa: %50eko deskontua.

asteko >> : eguraldia

ostirala

larunbata

igandea

astelehena

asteartea

asteazkena

osteguna

euria: 98%

Min: 3 Max: 10

euria: 99%

Min: 6 Max: 7

euria: 97%

Min: 3 Max: 6

euria: 90%

Min: 4 Max: 6

euria: 50%

Min: 3 Max: 6

euria: 95%

Min: 1 Max: 5

euria: 90%

Min: 1 Max: 4

tenperatura>>

Max. °C

Min. °C

euria l/m²

Irurtzun

12.8

-1.6

190.1

Etxarri A.

11

-0.3

177.9

Altsasu

4.9

-2.8

147.9

Aralar

Urbasa

ilargiaren aldia>>

ilgora

ilbete

ilbehera

ilberri

18

27

3

10

Acrylcolor
SISTEMA
BERRIA

KOLOREA
GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

Sure irudimena
zure altxorra

kalibreak

eskuoiak

bisita buletak

karletak

diagrama eta komunikazioan adituak

Guaixe

KOMUNIKAZIOA

argi@guaixe.net

948 562 107

>>11 galdera

Iratxe Sanz
Zuhatzuko kirol egitasmoa
Testua: Maider Betelu Ganboa

1.Kirolari lotutako egitasmoa prestatzen ari zarete Zuhatzun. Betidanik kirolarekin lotuta egon gara. Alexfondoko korrikalari ohia da, Aitorrek betidanik kirola egin izan du modu eta entrenatzaile pertsonalaren eta entrenamendu suspentsioan titulazioa ateratu eta nik irakasle moduan 20 urteko esperientzia dut: aerobik, gimnasia artistikoa, pilates, 3. adina, entrenatzaile pertsonala... Hau kontuan izanda eta Alex eta Aitor langabezia daudenez, herriari kirolarekin zer ikusteko duen zer bait prestatzea erabaki genuen.

2.Zein egitasmo prestatu duzue? Kirol areto bat prestatzen ari gara Zuhatzun, kirol jarduerak egiteko eta kirolarekin eta osasunarekin zer ikusteko duten ekintzak antolatzeke. Adibidez: talde jarduerak –aerobik, pilates...-, entrenamendu pertsonalak, mendi irteerak, hitzaldiak eta formazioa. Alde batetik kirol zerbitzua bakoitzaren neurritik eman nahi dugu, talde txikiekin edo bakarkakoekin lana eginez, eta, bestetik, proiektuari funtzio didaktikoa eman nahi dugu, osasuna, elikadura eta bestelako hitzaldi eta formazioarekin.

3.Zuhatzun bizi zarete eta Zuhatzun lan egin nahi duzue. Zer gauza hobeagorik bizi zaren tokian lan egitea baino? Gainera, guk eskainiko dugun zerbitzu falta ikusten dugu, Arakilen batez ere, hemengo jendeak kirola egin nahi badu kilometroak egitera behartuta baitago. Arbizun, Lekunberrin edo Irurtzunen hainbat aukera daude, baina eskas geratzen da, batere pertsonalizatua ez dagoelako. Bizi garen tokian lan egin nahi dugu, eta bertakoek bertan kirola egin nahi dute ere.



Iratxe Sanz eta Aitor Gil. Alex Sanzekin batera prestatzen ari dira kirol egitasmoa.

4.Sakantzen Sarean parte hartzen ari zarete. Zer da Sakantzen Sarea? Sakanan garapena sustatzeko gizarte sare ireki da. Sarearen helburua da, jarduera ekonomiko berriak eta lanpostu berriak sortzeko garapen komunitarioko esperientzia eraikitzea, Sakanako indar guzietan oinarrituz eta gizartearen indar endogenoak aktibatuz.

5.Zergatik parte hartzen duzue Sakantzen Sarean? Gure baitan proiektua sortzen hasizenean, Sakantzen Sarea sortzeko zegoela enteratu ginen eta bat egin genuen. Sakanan langabeziari aurre egiteko modu ona iruditu zitzaigun, gure artean antolatzea eta elkar laguntzeko.

6.Larunbatean Sarearen jardunaldia izango da Etxarrin. Larunbatean Iruñean formazioa dugu eta ezinezkoa dugu joatea, baina guztioi animatzen zaituztegu bertara hurbiltzera, nahiz eta buruan inolako proiekturik ez izan. Bertan ikusi ahal izango duzue ze nolako energia dagoen gure geroa jorratzeko eta ziurrenik ideia, talde edo gustuko duzun proiekturen bat aurkituko duzula. Argi dago gauzak dauden moduan gure geroa gure eskuetan dagoela.

7.Zuen enpresa sortzeko ideia Sakantzen Sarea baino lehen sortu zen, ezta? Ideia lehendik buruan genuen, baina Sakantzen Sarea asko laguntzen ari da. Proiektua nola garatu, zein pausu eman... Ziur nago beste batzuei Sakantzen Sareak asko lagundu diela ideiak ateratzeko egiten diren Brain Storming-ekin eta bestelako hitzaldi eta jarduerekin.

8.Hainbat enpresa ideia sortzea ahalbideratu omen du Sakantzen Sareak. Guk dakigula aholkularitza enpresa bat sortzearen asmoa dago, ondare materiala eta ez materialarekin zer ikusi duen beste bat eta turismoarekin zerikusia duen beste bat. Sakantzen Sareak ibilbide motza du eta oraindik goiz da fruituak jasotzeko, baina fruituak sortu direla argi dago.

9.Momentuz Sakantzen Sarearen zein balorazio egiten duzue? Balorazio ona. Osolagun garritzaigun pausoak ongi bideratzeko, nola antolatzen jakiteko eta aholkuetarako. Gainera, gure lana aurrera eramateko beste taldeen beharra izango dugunean, harremana erraztuko da.

10.Noizko zuen kirol areto egitasmoa martxan? Proiektua osotara datorren ikasturterako prest egotea espero dugu. Lokalaren erreforma egiten ari gara poliki-poliki eta mimo handiz, bete behar diren arlo guztiak kontutan izanik. Bestalde, Arakilgo Udalarekin harremanetan jarri ginen eta dagoeneko jarduera bat aurrera ateratu da: Pilates-mantuko gimnasia talde bat osatu da. Hiri-berrin eta Etxarrenen utzitako lokaletan lan egiten ari gara. Beraz, martxan gaude.

11.Zer diote zuhatzuarrek? Proiektua ezagutzen dute eta nola bait laguntzen dute ere. Kirol aretoa egiteko dugun lokala herrikoa da eta kondizio onean alokatu digute. Ideia ona dela iruditzen zaie herriari bizi emateko. Gainera, zerbitzua hain hurbil izatea ere gustatu zaie.

Munduko Musikak

BIERRIKEN ALDEKO KONTZERTUA + sorpresak

IRURTZUNGO MUSIKA ESKOLA
KITUKA BURUNDI
DJEMBE TALDEA
YOUSSEF KEJJI
MAIDER ANSA

sarrerak

5 € Sarrerak: LEKU ONA tabernan, KAXETA liburu-dendan eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan

Etxarri Aranazko Kultur Etxean
urtarrilaren 20an, 19:00etan

Mank

berdinez gure

beleixe

guaixe.net